



Irakaslearen Liburua

---

# HARTU HITZA


---

HEZKUNTZAKO HE1  
IKASMATERIALA



361'367.7



  
katalogoa  
Eibarko Herriak  
943.20.27.48  
20600 EIBAR



Irakaslearen Liburua

---

# HARTU HITZA

---

HEZKUNTZAKO HE 1  
IKASMATERIALA



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2000

PEÑALBA ALBERDI, Antton

Hartu hitza : Hezkuntzako HE1 : ikasmateriala : irakaslearen liburua / [egileak, Antton Peñalba Alberdi, Pedro Maria Aranburu Mujika, Juanjo Uranga Segurola]. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2000 or. ; cm. + 1 CD-ROM. — (Glotodidaktika-lanak ; 57)

ISBN 84-457-1549-6

1. Euskara - Metodoak. I. Aranburu Mujika, Pedro Maria. II. Uranga Segurola, Juanjo. III. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. III. Izenburua. IV. Bilduma 809.169(075.4)

- Argitaraldia: 1.a, 2000ko maiatza
- Ale-kopurua: 1.000 ale
- © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)
- Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
- Egileak: Antton Peñalba Alberdi  
Pedro Maria Aranburu Mujika  
Juanjo Uranga Segurola
- Azala eta marrazkiak: Julio Pardo
- Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.  
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
- Inprimatzea: Grafo, S.A.  
Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri
- ISBN: 84-457-1549-6
- Lege-gordailua: BI - 1.393-00

# AURKIBIDEA

---

HITZAURREA .....	7
I. KURTSO HASIERA .....	9
II. OHITURAK, JAIK ETA SINESKERIAK .....	37
III. INFORMAZIOA .....	61
ERANTZUNAK .....	95

THE UNIVERSITY OF CHICAGO



# HITZAURREA

---

Horra bi hitz, zein bere aldetik, sotil eta ttipi; zeinen indartsu eta adierazkor, ordea, biek bat egin eta elkarturik! Agindu itxura du, izan; baina ez beti darabilgu adiera horri loturik, jakin bai baitakigu gonbita, erregua eta eskaera adierazteko ere ditugula baliagarri. Bigarren adiera hori eman nahi diogu eskuetan duzun material-biduma honi.

Bide honetan, erabileran, uste osoa izateak eraman gaitu ikasmaterialok diren honetan antolatzerara, euskara eskuratze-bidean direnek hitza hartu eta erabiltzeko aukera izan dezaten. Antzeko burutazioak —inondik ere, antzeko fedearen seinale— erabili ditu, eta guk baino egokiago erabili, jakina, Andu Lertxundi idazleak: «Baina hitzak hitza du zor, eta hitzak hitza du sortzen. Esan nahi da erabilerak bakarrik trebatzen eta arintzen duela hitza».

Sarrerako gogoetak gogoeta, hona bilduma honen ezaugarriak:

## Norentzat?

Hitza hartzeko eskaintza denez, ez da komeni hasiberrien eskuetan jartzea. Aproposa da, ordea, Hezkuntzako HE1, Administrazio HE2 edota HABEren kurrikulu berriaren 2. mailan ari direnentzat. Aukeran, Hezkuntzako ikasleei begira eginergia irudituko zaio askori, lan-esparru horretakoak baitira, izan, ataza asko eta asko. Dena dela, ataza-kopurua eta gaiak kontuan izanik, erraz eta egoki erabil liteke 12 urtetik gorakoan artean ere, eta bereziki B eruedetan.

## Materail-sortaren zer-nolakoa

HARTU HITZA hau bi liburukik eta audio-materialak osatzen dute. Ikaslearen liburukia da lehenengoa. Bertan, ataza ugari dituzu bakarka, baina batez ere talde txikietan jarduteko: batzuk idatziz, beste batzuk entzumenaren bidetik, besteren batzuk irakurriz eta beste asko, gehienak beharbada, hitza ahoan hartuta burutu beharrekoak. Irakaslearena da bigarren liburukia. Hor dituzu atazak burutu ahal izateko behar diren ohar-iradokizunak eta material gehigarria. Audio-materialean, komunikabideetatik jasotako hainbat dokumentu dituzu: gehienak bene-benetakoak, baina badira sasiko batzuk ere, sasi-benetako egoeretan

grabatuak. Bada, azkenik, sei bat dokumentuko bideo-zinta bat ere: ez dago salgai, baina, behar izanez gero, Donostiako IRALEn eskura zenezake.

## Oinarri metodologikoak

Xede-hizkuntzaren jabe egiteak ezinbestez dakar erabiltzea: nekez eskura liteke hizkuntza, aritu gabe. Gogoeta honek ez bestek eraginik aukeratu dugu atazan bidea. Esku artean duzun ikasmaterial honek, beraz, jardutea eskatuko die ikasleei eta xede-hizkuntza erabiltzea komunikazio-ekintza jakinetan. Honetan ez duzu etxean eta bakarka bete-betean jarduteko ikasbiderik topatuko; bai, ordea, binaka edo talde txikietan jarduteko aukera. Ez duzu aurkituko, ezta ere, gramatika-gaitasuna eskuratzeko ohiko ariketa analitiko bildumarik; izan ere, nahi izanez gero, ez da zaila horrelakorik aurkitzea euskara ikasteko metodoetan.

Gure honetan atazak aurkituko dituzu: bi eratako atazak. Batetik, ataza itxiak, helburu oso jakinak eskuratzeko; horien bitartez, nozio eta funtzio-esaldi zenbait erabilaraziko dizkiezu ikasleei. Ataza irekiagoak izango dituzu bestetik: sortzaileagoak eta malguagoak, erabilera, elkar eragina eta jarduna sustatzera bideratuak.

Bukatzeko, sarreran esandakoa ekarri nahi dizugu gogora: HARTU HITZA eta jardunarazi, jardunak egingo ditu eta ikasleak euskaradun.

## Esker ona

IRALEn urteetako jardunbideak beti eman izan digu aukera gure iritziak eta esperientziak trukatzuz elkar aberasteko. Bilduma hau ere, beraz, bada, neurri batean behintzat, Bilbo, Gasteiz eta Donostiako irakastegietako lankideen ahaleginen emaitza eta fruitu. Bihoakie, bada, lerro hauen bitartez gure eskerrik beroena gurekin batera urteotan IRALEn, hiru lurraldeetan, aritu diren lankide guztiei. Gure esker ona erañtsi nahi diegu bereziki Donostiako iralekideei batetik, gure lana erraztu eta zenbait ariketari ahotsa jarri detelako eta Bilboko iralekide Alberto Ugarte, Jule Garmendia eta Agustin Txurrukari, bestetik, lehenengo biei gramatikaren funtzionaltasunaren bidetik urratsak ematen lagundu zigutelako eta hirugarrenari, aurreko biekin batera, material-sorta honen ardatz izan dugun HEI kurrikuluaren egile izan dugulako. Eskerrak, orobat, Jon-Simon Gartzinari, audio arloan emandako laguntzagatik.

Egileak

---

# **I. KURTSO HASIERA**

---



## 1.1. ELKAR EZAGUTZEN ETA AURKEZTEN

### INKESTA EGITEKO

*Hipotesien ariketa egin ondoren, banatu ikasleen artean eginkizun hauek, eta datu-bilketa egin dezala bakoitzak. Ikasle asko badira, eginkizun bakoitza biren artean edo-egin dezakete. Ziurta ezazu galdera egokiak egingo dituztela.*

*Moztu eta eman.*

1. Taldeko jendea sailkatu behar duzu adinaren arabera. Jendeari galdetu eta bildu ondorengo datuak:  
Jaioturtea, hilabetea eta eguna.  
Pentsatu zer galderak egin eta hasi lanean.
2. Taldekide bakoitzaren familia-egoera ezagutu behar duzu: ezkondua/ezkongabea, bakarrik edo beste norbaitekin bizi den... Seme-alabei buruzko datuak ere jaso (kopurua eta adina).  
Pentsatu zer galderak egin eta hasi lanean.
3. Taldekideen artean norik ote darama denbora gehien lanean? Guztiekin hitz egin eta egin sailkapena.  
Pentsatu zer galderak egin eta hasi lanean.
4. Zure ikaskideen ikasketak ezagutu behar dituzu (Irakasle ikasketak, lizentziatura, zientzietakoak ala letretakoak diren etab.)  
Pentsatu zer galderak egin eta hasi lanean.
5. Zure ikaskideen artean nortzuk ote dira funtzionarioak eta nortzuk behin-behinekoak edo bestelakoak?  
Pentsatu zer galderak egin eta hasi lanean.
6. Zure ikaskideek zer zaletasun dituzten jakin behar duzu.  
Pentsatu zer galderak egin eta hasi lanean.

## 2.1. IKASTETXEA

### ENTZUMENA

*Hemen duzu ikasleak entzungo duen elkarrizketaren gidioa. Bi aldiz entzutea komeni da. Lehenengo entzunaldia egin ondoren, minutu batzuk utziko zaizkie ikasleei, jasotakoa euren artean truka dezaten; eta, ondoren, bigarren entzunaldia egingo da. Ariketa bukatutakoan, zenbait ikasleri areto desberdinen kokalekuaz galdetzea komeni da, kontrol gisara.*

— **Ta? Non zabilta, ba, azken aldi honetan?**

— Zumaiako institutuan.

— **A, bai? Noiztik zaude, ba, Zumaian?**

— Duela pare bat urte edo joan nintzen.

— **Ta? Zer moduz? Zer moduzko institutua da?**

— Politaaa! Txikia da, bi pisu besterik ez ditu. Beno, bi pisu ez, beheko solairua, beheko planta eta beste bi, jakina.

— **Eta zerbitzu aldetik, zer? Nolakoa da eskola barrutik?**

— Ondo dago. Beheko plantan sartu eta, bertan, zuzendaritza eta idazkaritza ditugu, ezker-eskuin. Ezkerreko aldean zuzendaritza eta beste aldean, eskuinetara, idazkaritza. Eta gero, ba, pasilo muturrean, sarreraren pare-parean, gimnasioa dugu; oso gimnasio zabala eta argia.

— **Beraz, beheko aldean idazkaritza, zuzendaritza eta gimnasioa.**

— Horixe!

— **Eta gainontzean?**

— Baaaa, gainontzean, esan dizut... Gure institutua txiki samarra da, lerro bakarreko institutua da, eta maila bakoitzeko gela bakarra dugu. Esaterako, ba, lehen mailakoen gela eskaileretan gora jo eta eskuinaldean dago, komunen ondoan. Pasiloaren hasieran, eskuineko aldean, komunak daude eta ondoan lehen mailakoen gela. Pasiloan aurrera joanda, eskuineko muturrean, liburutegia.

— **Orduan, eskuinaldean dagoen gelan komunak dituzue, ezta?**

— Horixe! Gero, komunen ondokoa lehen mailakoena da eta pasilo muturrekoa liburutegia.

— **Eta pasiloaren beste aldean, zer?**

— Pasiloaren beste aldean bigarren mailakoen gela eta marrazketa gela ditugu: bigarren mailakoen gela komunen parekoa da eta marrazketa gela, berriz, azkeneko honen ondokoa.

- 
- **Zein? Liburutegiaren parean dagoena?**
- Horixe bera!
- **Eta bigarren pisuan, zer duzue?**
- Hori hurrengo batean esango dizut. A! Baina inoiz nire bila etortzen bazara, irakasle gelan edo laborategian aurkituko nauzu.
- **Ta, non dira, ba, irakasle gela eta laborategia?**
- Biak bigarren pisuan daude: irakasle gela pasilo hasieran, hasieran bertan dago, ezker aldean, eta laborategia, berriz, pasiloaren beste muturrean, bukaeran, eskuineko aldean.
- **Beno, orain badakit zurekin egon nahi izanez gero, nora jo behar du-  
dan: bigarren pisura joan eta pasillo hasierako ezkerreko gelara,  
irakasle gelara, edo pasillo bukaerako eskuineko, laborategira.**
- Ederki, ondo segi eta hurrengora arte.
- **Bai, agur.**

## 2.2. IKASTETXEA EZAGUTZEN


*A eta B ikasle- fitxak banatu behar dira ikasleen artean, aurreko ariketan landutako leku-nozioak finka ditzaten.*

### A IKASLEA


*Ariketa honen helburua leku-nozioak lantzea da. Errepara iezaiozu zure liburuan duzun elkarrizketari eta, hura eredutzat hartuz, ekin lanari. Saia zaitz erantzun zuzen-zuzena ematen, eta bide batez nozioekin piska bat jolasten.*

*Galdetu zure lagunari ea non dauden:*


- idazkaritza
- DBHko bigarren mailako gela
- marrazketa gela
- guraso elkartearen bulegoa
- irradi gela
- fotokopia gela



Beheko solairua.



Lehenengo solairua.



Bigarren solairua.



## 2.2. IKASTETXEA EZAGUTZEN


*A eta B ikasle- fitxak banatu behar dira ikasleen artean, aurreko ariketan landutako leku-nozioak finka ditzaten.*

### B IKASLEA


*Ariketa honen helburua leku-nozioak lantzea da. Errepara iezaiozu zure liburuan duzun elkarrizketari eta, hura eredutzat hartuz, ekin lanari. Saia zaitzez erantzun zuzen-zuzena ematen eta bide batez nozioekin piska bat jolasten.*

*Galdetu zure lagunari ea non dauden:*


- liburutegia
- preteknologia tailerra
- DBHko 3.mailakoen gela
- hezkuntza berezikoen gela
- informatika gela
- tutoretza



Beheko solairua.



Lehenengo solairua.



Bigarren solairua.

## 2.4. NON ARRAIO OTE DAGO GELA HORI!

*Hona hemen ikasleei emateko zenbait agindu:*

Joan zaitetz ikasketaburuarengana edo zuzendariarengana eta ikus-entzun ezko gela erabiltzeko txanda eska iezaiozu.

Joan zaitetz fotokopia gelara eta orrialde honen kopia handitua egizu edo egiteko eskatu.

Joan zaitetz gimnasioko aldageletara eta begiratu zenbat aldaleku dauden.

Liburutegira joan eta Xabier Mendigurenen bi libururen izenburuak ekar itzazu.

### **Oharra:**

*Gai honetan leku nozioez eta hiztegiak gain, «berri eskatu/eman» funtzioak erabiltzeko gomendioa egiten da.*

#### *Eskatu:*

Aizu, ba al dakizu non dagoEN fotokopiadora gela?

Aizu, esango didazu non dagoEN fotokopiadora gela?

Aizu, fotokopiadora gela, mesedez?

#### **Eman:**

**Ziurtasunez:** Bai, badakit. Joan zaitetz...

**Zalantza:** Ez dakit oso ziur, baina uste dut .... ELA

**Ezjakintasuna:** Ez dakit./ Auskalo!

Sentitzen dut, baina beste norbaiti galdetu beharko diozu.

### 3.1. NON DEMONTRE OTE?

#### *Hona hemen elkarrizketaren gidoia*

- **Kaixo, Iker!**
- Kaixo. Zer? Betiko martxan?
- **Bai, hemen gabiltza, San Joseko zubirako planak egiten.**
- Kanpora joateko asmotan, ala?
- **Bai, oraindik ez dakigu zein aldetara, baina bai, norabait bai.**
- Aizu, ba, ez dakit ezaguna zaizuen, baina guk lehengoan primerako parajea ezagutu genuen, oso paraje ederra, Kexaa.
- **Kexaa? Eta non demontre dago, ba, hori?**
- Ba..., Aiarako bailaran.
- **Aiarako bailaran?**
- Bai, Amurrio aldean, Amurriotik gertu, hamarren bat kilometrora edo.
- **Amurriotik gertu, bai. Baina non? Zein aldetara egin behar da? Laudio aldera ala beste aldera?**
- Ez, Laudio aldera, ez; beste aldera: Artziniaga aldera. Artziniagara heldu aurretik, baina han inguruan dago.
- **Ondo dago jakitea; Artziniaga aldera orduan. Baina Artziniaga aldera, nora?**
- Ba, entzun! Amurrion Artziniagako bidea hartu behar duzu. Ez nahastu, e! Urduñako bidea utzi eta Artziniagakoa hartu. Entzuten al duzu?
- **Bai, bai. Segi, segi aurrera!**
- Orduan, behin Artziniagako bidea hartuta, lehenengo bidegurutzean ezkerrekoa utzi. Bide hori Belandia aldera dihoa; beraz, utzi ezkerrekoa. Hurrengo hirurak ere utzi: lehenengoa ezkerretara doana eta hurrengo biak eskuinetara doazenak. Ez hartu ez Murga alderako bidea, ez Izoriakoa, ezta Zuatzakoa ere. Zuk segi zuzen, segi zuzen Arespalditzara heldu arte. Han, Arespalditzan, ezkerreko bidea hartu, Menoio jartzen duen bidea, eta bertara heldu baino zertxobait lehenago eskuinaldera jo. Berehala aurkituko duzu. Lasai joan, herrira heldu bezain pronto jauregi handi eta eder bat ikusiko duzu-eta.
- **Toki onean dago hori! Ez dakit aurkituko dugun. Ea ondo ulertu dizudan. Esan didazu Amurriotik Urduñarako bidea hartu behar dudala, ezta?**
- Ez ba, ez ba! Urduñakoa ez, Artziniagakoa. Jabetu al zara?
- **Bai, bai, orain bai. Orduan, Artziniagako bidea hartu; lehenengo bidegurutzera, Belandiara doana, utzi, ezkerretara utzi... Hurrengo hirurak ere uzteko esan didazu, ezta?**

- Bai, hurrengo hirurak ere utzi; lehenengoa ezkeraldera eta hurrengo biak eskuinaldera.
- **Ederki. Arespalditza aldera joan eta herria igaro ondoren, berehala ezkerretara, ezta?**
- Bai, bai, horixe! Ezkerretara.
- ***Eta gero? Berriz eskuinaldera, ala?***
- Bai, primeran jaso duzu.
- **Lekutan dago! Asmatuko ote dugu?**
- Bai horixe! Beno, nahi izanez gero, beste bide bat ere badago, e! Entzun! Amurrion Artziniagako bidea hartu eta segi zuzen-zuzen Menagarairaino. Han, herriko sarreran bertan, ezkeraldera hartu eta bigarren herria duzue Kexaa. Ez duzue galbiderik. Bidean zoaztela, jauregi handi bat ikusiko duzue urrutitik; horixe duzue Kexaa.
- **Bigarren bide hau errazagoa da: Menagarairaino joan eta han, ezkeraldera.**
- Bai, baina kontuz, e! Bigarren herria da-eta, ez lehenengoa. Entzun?
- **Mapan ba al dator ditxosozko herri hori?**
- Etorriko ez da, ba. Jakina datorrela!
- **Beno, bale, bale. Joango gara Kexaa horretara eta bueltan hitz egingo dugu.**
- Bale, ba. Ondo ibili. A, eta ez ahaztu bizikletak eramatea, sekulako para-jeak dituzue-eta bizikletan ibiltzeko.
- **Baaaaai.**

### 3.2. LAGUN IEZADAZU!

*Ariketa hau biko taldeetan, egiteko prestatua dago. Banatu ikasleen artean A eta B ikasle-fitxak. Eskatu ikasleei ikasitako nozioak erabiltzen saia daitezela.*

#### A IKASLEA

1. Zure lagunak ez ditu bere mapan **Errezil, Ataun eta Altzola** aurkitzen. Lagun iezaiozu herri hauek mapan kokatzen!
2. Zure laguna:
  - **Elgoibarren** bizi da eta **Angiozarrera** joan nahi du.
  - **Tolosan** bizi da eta **Laurgainera** joan nahi du.

Lagun iezaiozu Elgoibartik Angiozarrera eta Tolosatik Laurgainerako bidea egiten!

1. Ez dituzu zure mapan **Berrobi, Saturraran eta Mekolalde** aurkitzen. Eskatu laguntza zure lagunari!
2. Zu:
  - **Beasainen** bizi zara eta **Beizamara** joan nahi duzu.
  - **Legazpin** bizi zara eta **Arrasatera** joan nahi duzu.

Eskatu laguntza lagunari!

#### B IKASLEA

1. Zure lagunak ez ditu bere mapan **Berrobi, Saturraran eta Mekolalde** aurkitzen. Lagun iezaiozu herri hauek mapan kokatzen!
2. Zure laguna:
  - **Beasainen** bizi da eta **Beizamara** joan nahi du.
  - **Legazpin** bizi da eta **Arrasatera** joan nahi du.

Lagun iezaiozu Beasaindik Beizamara eta Legazpitik Arrasaterako bidea egiten!

1. Ez dituzu zure mapan **Errezil, Ataun eta Altzola** aurkitzen. Eskatu laguntza zure lagunari!
2. Zu:
  - **Elgoibarren** bizi zara eta **Angiozarrera** joan nahi duzu.
  - **Tolosan** bizi zara eta **Laurgainera** joan nahi duzu.

Eskatu laguntza lagunari!

## 4.2. EGUN JAKINEN BERRI EMATEN

*Bana ezazu hurrengo orrialdeetan duzun informazioa gelako ikasleen artean. Ikasle bakoitzari nahi adina informazio eman diezaiokezu; dena den, ez ahaztu, ariketa behar bezala egiteko, informazio osoa jarri behar duzula ikasleen eskuetan.*

OSTIRALA 1989ko azaroak 17  
 Editatzailea: Orain  
 Elkarte Anonimoa  
 Eziago poligonoa, 10-B  
 Hernani (Gipuzkoa)  
 D.L.: SS 643/86

IV. URTEA • 166 ZENBAKIA  
 Zuzenda: PABLO MUÑOZ  
 Koordin: JOXEAN AGIRRE  
 Diseinoa: JON ELEXGARAY

# hemen

**Inazio Ellakuria eta beste bost apaiz tiroz  
 erahilak San Salvadorren**

Lanak entregatzeko epea  
 II-28

# ZARAUZ

**EUSKAL 1985 JAIK**

*abuztuak 31  
 irailak 9*

**HABE**

1989.eko azaroaren 15koa

**HAMABOSTALDI  
 KULTURALA**

**DOKTORAUTZA  
 IKASTAROAK**

**Matrikula epea  
 II-12/ III-3**

**KILOMETROAK**

**87**

**EUSKAL HERRI BAT  
 ... ESKOLA PUBLIKO BAT**

Gabonetako oporrak

**URRIAK 4  
 ZARAUZ**

## 4.2. EGUN JAKINEN BERRI EMATEN

Lurralde egunak

*Nafarroa: XII-3**Araba: IV-28**Gipuzkoa eta Bizkaia: VII-31*

Zerga-kitapena

Epea: I-10 / III-25

(biak barne)

**ARGIA**Mitxelena

1987 Urria 18—I. Urtea—1.169 zenbakia—145pezeta (BEZ barne)/ 8 libera

**elkarrizketa****EGUNA**

Katea ez da eten

II. garaia- IV urtea- 304 zenbakia

65 pezeta/4,5 L.

1989ko azaroak 23. Osteguna

**ARTE ZALEAK****UNTZI-MAKETAK**

Apirilak 6/ ekainak 30

*Orduak:**Setatik-9ak arte; astelehen  
eta asteazkenetan**Setatik-8ak arte- ostiraletan*

JON MIRANDE

HAUR  
BEBOTAKOA

(Ipuin berri bat)

Lehen argitalpena: 1970 - Abuztua

Bigarren argitalpena: 1983 - Otsaila

## 4.2. EGUN JAKINEN BERRI EMATEN

*Filosofia*  
*Sardunaldiak*  
*Martxoak 7,8,9*

ekintza  
borondatea  
arrazoia

Filosofi eta  
Hezkuntza  
Zientzien  
Fakultatea

Bilera Aretoa  
Aurrezki Kutxa munizipala

**ZARAUTZ**

**ESPAINIAKO LXV**

1983-MARTXOAK 6  
GOIZEKO 11ETAN

**KROS  
TXAPELKETA**

ANTOLATZAILEAK:  
ZARAUTZ-KO KIROL ELKARTEA  
Eta GIPUZKOAKO ATLETIKA  
FEDERAKUNTZA

Mailak: SENIOR gizonetzkoa-emakumezkoa  
JUNIOR gizonetzkoa-emakumezkoa

Tokia: ZARAUTZ-KO GOLF-~~A~~

BABESLEA:

**ZARAUTZ-KO UDALA**

**ASTE  
KULTURALA  
AMARAN**

*Maiatzaren*  
19-25

Antolatzailea:  
**DONOSTI BERRI ELKARTEA**

Babeslea:  
**AURREZKI KUTXA  
MUNIZIPALA**

**EMB**

II. EUSKAL MUNDU-BILTZARRA

DONOSTIA

1987ko abuztuaren 31- irailaren 4

**IRALE LEGEA**

EUSKAL HERRIKO A.ren A- 1988KO martxoak 22  
Nº 57 B.O. DEL PAIS VASCO- 22 de Marzo 1988

**TOBACCO DAYS**

**Anjel Lertxundi**

Erein Argitaletxea  
1987-XII-19

OINARRIZKO EUSKARAZKO  
ALDIZKARIA

**Aizu!**

1988ko urtarrila 64.zka 222pta. 13 libera



## 5.1. IKASTURTE HASIERA

*Hona hemen ikasleek, ikasturtearen hasiera dela eta, entzungo dituzten tutorearen hitzak.*

### **Kurtso hasiera: hasierako oharrak**

· Egunon! Ea, hasi egingo gara, e! Ala, eseri denok, gero ere izango duzue kontu-kontari aritzeko denbora eta. Ea, ba, has gaitezen! Beno, hasteko, ongi etorria eman behar dizuet. Oporrak primeran pasatu dituzue, ezta..? Eta..., sasoi betean etorriko zineten, ala? Pozten naiz. Orduan, aurrera egingo dugu.

Urtero bezala, hasteko, aurtengo ordutegia emango dizuet. Badakizue, bihar bertan hasiko gara lanean, eta ordutegia lehenengo kontua da... (hasperenak eta zurrumurru franko...). Bai, badakit hasteko desiatzen zaudetela, beraz...

Beno, nahi baduzue, orain bertan har dezakezue ordutegia, edo bestela, saioaren bukaeran iragarki-taulan utziko dizuet, gero kopia dezazuen.

Egutegiari dagokionez, hurrengo astean-edo banatuko zaizue, eta gero, bukaeran, urteroko ohartxoak gogoraraziko dizkizuet.

Ordutegia dela eta, dakizuen bezala, eskola goiz eta arratsalde izango dugu. Eta, iaz bezala, goizean klaseak 9etatik 12,30ak arte izango dira; arratsalde, berriz, bi saio, 2,30etatik 4,30ak arte. Saioak ordu betekoak izango dira, bai goizean, baita arratsaldean ere. Lehenengoa, goizeko 9etatik 10ak arte izango da eta bigarrena, 10etatik 11ak arte. Ondoren, ordu-erdiko atsedentxo bat izango dugu eta azkenean, hirugarren saio bat, 11,30etatik 12,30etara. Arratsaldean bi saio izango ditugu: 2,30etatik 3,30etara lehenengoa eta 3,30etatik 4,30etara bigarrena. Konforme? Segitzen didazue, ezta? Ea, ba, goazen aurrera! Erne orain, e! Orain esango dizuet ze ordutan izango duzuen gai bakoitza. Prest? Ea, ba!

Lehendabizi euskara. Euskara, astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan izango duzue. Guztietan goizeko lehenengo orduan, 9etatik 10ak arte, ostegunetan izan ezik: ostegunetan bigarren saioan izango duzue, 10etatik 11etara. Beno, jaso duzue? Aurrera ba!

Gaztelera. Gaztelera, astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan. Hau, berriz, bigarren saioan, 10etatik 11ak arte, asteazkenetan izan ezik. Asteazkenetan, gaztelera arratsaldeko lehenengo saioan izango duzue, arratsaldeko 2,30etatik 3,30etara.

Gizarte, Giza Zientzia. Azkarregi ari al naiz? Ez? Ondo, orduan? Bale, ba! Giza Zientzia, orduan, astean hirutan: astelehen, astearte eta ostegunetan. Guztietan 2,30etatik 3,30 etara.

Ingelesa ere hirutan, astean hirutan izango duzue: astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko bigarren saioan eta ostiraletan, berriz, arratsaldeko 2:30etatik 3:30ak arte.

Natur Zientziari dagokionez, hemen dioenez, bitan duzue, bietan arratsaldetan: 3,30etatik 4,30etara, astearte eta ostiraletan.

Ea, animo, gutxi falta zaigu eta! Oraintxe bertan bukatuko dugu... Natur zientzia esan dizuet, ezta? Bai? Beno, orduan, hurrengo Plastika da.

Plastika, iaz bezala, bi ordu segidan izango duzue, asteazkenetan goizeko lehen bi orduetan, hain zuzen ere. Eta bukatzeko, Soinketa eta Erlijio/Etika: Soinketa ordu bete asteazkenetan, libre dagoen orduan, eta Erlijio/Etika, berriz, ostegunetan. Nahikoa, ezta?

Hartu duzue denok? Zalantzarik edo? Garbi dago nonbait, ezta? Primeran!

## **Bigarren zatia**

Beno, lehen esan dizuedan bezala, saioa bukatu baino lehen ohiko zenbait ohar(zurrukurruak). Bai, betikoak, urteroko leloa, bai. Arrazoi osoa duzue, baina, esan eta esan ibili arren, hemen gor ugari dago nonbait, eta ...

Hasteko, badakizue ezin izango zaretela sartu 9,10 baino beranduago etorzen bazarete. Beraz, beranduago etorri gero, beheko gelan geratu beharko duzue, ikasgelara igo gabe.

Beste aldetik, gogorarazten dizuet txirrina jo bezain laster bakoitzak bere gelan egon behar duela, eta ez dugula inor ikusi nahi pasiloetan batetik bestera. Honekin batera, badakizue, irakasleren bat gaixo dagoelako-edo irakaslerik gabe gelditzen bazarete, ez daukazuela gelatik irteterik, ezta pasiloetan oihuka aritzerik ere, beste ikasle guztiak klasean egongo dira eta.

Geletan takilak dituzue zuen liburu eta gauzak gordetzeko. Kontuz ibili eta ez utzi giltzarik jarrita edo takila irekita. Honetaz gain, badakizue, takilaren bat hondatuz gero, bakoitzak izango duela bere takilaren ardura, eta egindako txiki-zioak-edo ordaindu beharko dituela.

Huts egiteei dagokienez, badakizue gurasoen justifikazioak ekarri behar dituzuela beti eta bost hutsegite egiten badituzue, gurasoei berri emango zaiela, jakinaren gainean egon daitezen.

---

Eta bukatzeko, azkenengo oharrak. Badakizue galarazita daukazuela igogailua erabiltzea. Pasiloak estuak dira; badakizue, ezta? Beraz, esan beharrik ez dago pasiloetan zehar poliki ibili behar duzuela. Konforme? Zuek zarete eskolako zaharrenak, eta ea eredu on bat zareten gainontzeko ikasle txikiagoentzat.

Beno, ez dakit ezer ahaztu zaidan, baina kurtsuan zehar izango dugu aukera halako kontuez hitz egiteko; beraz, bukatu egingo dugu gaurko saioa.

## 5.2. TRUKATU INFORMAZIOA

### A IKASLEA

#### **Eskatu informazioa zure lagunari:**

- Aizu, badakizu familiak euskalduntzeko matrikula epea noiz irekitzen den?  
.....
- Esango didazu zein lekutan eta ordutan egin dezakedan matrikula?  
.....
- Esango didazu noiztik noiz arte dagoen irekita Hizkuntza Plangintzarako Graduondoko Ikastaroa egiteko matrikula epea?  
.....
- Noiz hasiko dira klaseak Lan Harremanen Unibertsitate Eskolan?  
.....
- Noiz eta non da San Mateo Torneoko finalerdia?  
.....

#### **GASTEIZKO UDALA**

#### **ARGIBIDEETARAKO UDAL BULEGOA OHARRA**

Interesaturik leudekeen herritarrei jakinarazten zaie irailaren 21ean, osteguna, San Mateo eguna dela, udal langileen patroia alegia. Horregatik, udal bulegoak itxita egongo dira, Espainia Plazakoa, Europakoa nahiz Iparralde kaleko Herritarrei Laguntzeko Bulegoak salbu.

Hauek 9,30etatik 13,30etara eta 14,30etatik 19,30etara egongo dira zabalik.

Gasteiz, 1995eko iraila.

#### **metro bilbao**

Argibide gehiago nahi izanez gero, irailaren 25etik aurrera hona jo.

- BILBOKO ERAKUSTAZOKA  
7. Zutoiarte. (Astelehenetik larunbatera, 8,30etatik 20,30ak arte)
- BEZEROEN ARRETARAKO BULEGOA  
Astelehenetik ostiralera, 8,30etatik 19,30ak arte.

Telefonia

4254025

Astelehenetik ostiralera 8,30etatik 19,30etara

FAEMINO  
Y  
CANSADO

**Irailaren 29-30**

VICTORIA EUGENIA  
ANTZOKIA

**20,00etan**

#### **Gure ikuskizuna umorezko masaje bat da**

Umore berezi hori  
Donostian berriro ere  
3 emanaldi besterik ez

Butaka, palkoa, platea eta balkoia 2.000

1.500

Sarrerak eta abonoak salgai

takila orduak 11,30-13,30/ 17,00-20,00  
10,30-11,30

Telefonia: 48.11.60

#### **EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA BIZKAIKO IRAKASLEGOAREN UNIBERTSITATE ESKOLA**

Matrikulatutako ikasle guztiei jakinarazten zaie 1995/96 ikasturtea datorren urriaren 2an hasiko dela, ondoko ordutegi honen arabera:

**Goizko 9etan:** LEHEN HEZKUNTZA, eta ATZERRITAR HIZKUNTZA 3. Mailakoak

**Arratsaldeko 15etan:** LEHEN HEZKUNTZA, MUSIKA HEZKUNTZA ETA GIZARTE HEZKUNTZA 1. Mailakoak

IKASTEGIKO ZUZENDARITZA

## 5.1. TRUKATU INFORMAZIOA

### B IKASLEA

#### **Eskatu informazioa zure lagunari**

- Aizu, badakizu noiz datozen Donostiara **FAEMINO** eta **CANSADO**?  
.....
- Non eta zer ordutan izango da emanaldia?  
.....
- Zer egin behar da sarrerak hartzeko? Zer ordutegi dago?  
.....
- Noiz hasiko dira **BIZKAIKO IRAKASLE-  
GOAREN** ESKOLAN Gizarte Hezkuntza-  
ko klaseak?  
.....
- Noiz irekitzen da Bilboko metroko beze-  
roen harrerarako bulegoa?  
.....
- Informazio zehatzagoa eskatzeko zein tele-  
fonatara deitu behar da? Eta noiz?  
.....
- Noiz da San Mateo eguna?  
.....
- Zer ordutatik zer ordutara daude zabalik bu-  
legoak San Mateo egunean?  
.....

#### **FAMILIAK EUSKALDUNTZEKO EGITASMOA**

NORENTZAT	0-12 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoentzat
MATRIKULAZIO EPEA	Irailaren 11tik 27ra arte
NON MATRIKULATU	Udaletxean, Euskara Zerbitzuan (8:00-13:30)
MATRIKULAREN PREZIOA	18.700 pta
ORDAINTZEKO ERA	1go epea matrikulekin batera 9.000. 2.epea otsailean 9.700
BEKA-SISTEMA	% 80 asistentzia izanez gero, 9.400 pta itzuliko zaizkio ikasleari ikasturtea amaitu eta gero
HAURTZAINDEGI ZERBITZUA	Martxan jarriko da gurasoak klasean diren bitartean, baldin eta 4 hurreko taldea osatzen bada.
INFORMAZIOA	Euskara Zerbitzua 524650 (goizez) AEK 519144 (arratsalde)

#### **LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA**

Logroñoko Adarragatik, zuzenean  
**LARUNBATA**  
**17:00 etan**

**San Mateo Torneoko Finalerdia**

**RETEGIII-GALARZAI  
SALABERRIA-ELKORO**

#### **EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

**HIZKUNTZA PLANGINTZARAKO  
GRADUONDOKO UNIBERTSITATE  
DIPLOMA**

Aurreinskripzio epea: Irailaren 25etik urriaren 6ra  
Matrikula epea: Urriaren 9tik 20ra arte  
Antolatzailea: Euskal Herriko Unibertsitatea  
Babesleak: Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea  
**HABE**  
Informazioa: Euskarako Errektorordetza 94-4647700 (Arantxa)

#### **EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

**LAN HARREMANEN UNIBERTSITATE  
ESKOLA**

**UPV/EHUko LAN HARREMANEN  
UNIBERTSITATE  
ESKOLAREN ZUZENDARITZAK**

Honako hau **JAKINARAZTEN** DIE ikasle guztiei: klase guztiak- bai Gizarte Graduatuei (2. eta 3. kurtsoak) dagozkienak, hala nola Lan Harremanetakoak (1. kurtsoa)- hurrengo 1995eko urriaren 2an hasiko direla, 08:00etan goizeko txandakoentzat eta 15:00etan arratsaldeko txandakoentzat

**ZUZENDARITZA**

### 6.3. ARAUDIEN BERRI EMATEN

*Hona hemen ariketa hau egiteko ikasle-fitxak.*

#### A IKASLEA

*Eskuetan duzu Andatzako polikiroldegiko araudia. Prestatu eta, ondoren, zure lagunari azal diezaiozu. Kontuan izan egun hauetan ikasitako formulak erabiltzea komeni zaizula.*

#### Polikiroldegiko barne-araudia (laburtua)

**Ordutegia:** 7:30-22:00

**Sarrera:** (bazkide ez direnentzat) 350 pzta.

**Sauna:**

Emakumezkoak (astelehen, asteazken eta ostiral)  
Gizonezkoak (astearte, ostegun, larunbat)

**Pistak:**

Kirol-oinetakoak  
8 urtetik beherako haurrak, guraso edo erantzuleekin.

**Galarazi/ debekatu:**

Txanorik gabe uretan sartu  
Belarretan jan (tabernako mahaiak)  
Dutxatu gabe bainatu  
Zakurrak/ irratiak  
Edariak tabernatik atera  
Instalazio barruan erre  
Baloiekin eta pilotekin aldageletan  
Igerilekuan eta belar gainean jolastu

*Zure lagunak «Camping de la FERME»ko barne-araudia azalduko dizu. Saia zaitetz punturik garrantzitsuenak jasotzen. Zerbait ondo ulertzen ez badiozu, galdetu eta informazioa zehaztasunez jaso.*

### 6.3. ARAUDIEN BERRI EMATEN

#### B IKASLEA

*Eskuetan duzu «Camping de la FERME» ko barne-araudi laburtua. Presta ezazu eta konta iezaiozu zeure lagunari. Kontuan izan egun hauetan ikasitako formulak erabiltzea komeni zaizula.*

#### «Le ferme»ko barne-araudia (laburtua)

**Ordutegia:** Goizeko 8etatik aurrera:

**Akanpatzeko baldintzak:**

Arduradunaren baimena

Barne-araudia onartu

Kanpindenda arduradunak esandako tokian jarri

**Izenematea:**

Nortasun agiria

**Garbitasuna:**

Arropa garbitu/ leku jakinetan

Zakarrak eta paperak

**Debekatu/ galarazi:**

Joko zaratatsuak gaueko 9/ goizeko 9

Isiltasun osoa gaueko 10/ goizeko 7

Sua egin

Zuhaitzetan iltzea sartu

Gaixotasuna daukan lagunik sartu

Arduradunaren esku dago araudia hausten duenari isuna jarri edota kanpinetik kaleratzea.

*Zure lagunak Andatzako polikiroldegiko barne-araudia azalduko dizu. Saia zaitez punturik garrantzitsuenak jasotzen. Zerbait ondo ulertzen ez badiozu, galdetu eta informazioa zehaztasunez jaso.*

## 6.8. HAURTXOTEKA

### BAIMENAK/DEBEKUAK: «HAURTXOTEKA»

#### Erabilera

1. *Funtzio-esaldien erabilera azaldu.*
2. *Gelan galderak eta erantzunak banatu, bakoitzetik bana eta nahasian. Ohar zaitez batzuek ez dutela erantzun jakinik eta, beraz, galderaren bat edo beste erantzun jakinik gabe gera daitekeela. Jolasa bizitzeko helburua du horrek. Denak zutik eta gelan zehar ibiliz.*
3. *Bakoitzak bere galderaren erantzuna aurkitu behar du («Jakin nahi nuke ea -terik daukagun» ...) eta bere informazioaren berri eman.*
4. *Inportantea:*
  - a) *ezin da galdetu «zuk zer galdera edo erantzun daukazu?»*
  - b) *nahiz eta batek berari egin dioten galderaren erantzun zuzena ez eduki bere iritzia eman dezake («nik uste dut hori ez dagoela egiterik/hori ezin dela egin/hori ez daukazula egiterik, baina ez nago ziur; hobe duzu beste norbaiti galdetzea»), baina argi utzi behar du berak ez daukala informazio zuzenik eta, beraz, hobe duela galdezka jarraitzea. (Gauza bera egin liteke idatziz ere).*
5. *Ustez dena argitu denean galdegiozu bakoitzari: «zuk zer jakin nahi zenuen? Eta zer erantzun jaso duzu? Norengandik?» (zehar-galdera eta konpletiboa lantzeko aprobeixatu). Azkenik, aukera izango duzu dena argitzeko.*



## HAURTXOTEKA

<p>Galdera Aizu, zuk badakizu, ume txikiekin gabiltzanean, traste pila bat eramaten dugula (haurren kotxea, erosketak, paketeak, ...) Gauza horiek uzteko tokirik ba al dago haurtxotekan ala kanpoan utzi behar dira? Han uzterik badaukat ala galarazita dago?</p>	<p>Erantzuna Nola ez! Jakina! Badago tokia, bai; ez kezkatu horrekin. Trasteak uzteko tokia badago eta lasai etorri.</p>
<p>Galdera Aizu, haurtxoteka honetan gela bat baino gehiago egongo da, ezta? Eta umeek ba al daukate ibiltzerik alde batetik bestera edo gela batetik bestera? Ala mugitu gabe egon behar dute? Zeren gure umea oso mugitua eta bizia da, eta ez da geldirik egoten.</p>	<p>Erantzuna Ez da komeni haurrak alde batetik bestera ibiltzea. Leku jakin bat daukate beraientzat eta hor egon behar dute. Beren lekuan egoten ikasi behar dute. Ulertzen?</p>
<p>Galdera Aizu, gure umeak eskolatik irten eta berehala joan nahi du haurtxoteka horretara eta ez dauka meriendatzeko denborarik. Merienda eta guzti joan daitezke umeak? Hor bertan meriendatzerik badaukate? Ala debekatuta dago jatea?</p>	<p>Erantzuna Haurtxotekan ezin da jan; umeek liburuekin ibili behar dute eta janariarekin zikindu egingo dituzte. Beraz, sentitzen dut, baina ezin dute hemen meriendatu; hemen ez dago jaterik.</p>
<p>Galdera Aizu, nik umea gustura eramango nuke haurtxoteka horretara, baina ez dakit zenbat denbora utzi hor; haurtxoteka horretan zenbat denbora egin dezake haurrak? Nahi adina denbora egoterik badauka umeak ala denbora mugatua da? Ordubete, adibidez?</p>	<p>Erantzuna Ez da komeni denbora gehiegi egotea. Gure helburua da umea liburuekin disfrutatzen hastea; beraz, ezin da eduki umea gogoz kontra. Aspertzen denean, hobe kanpora joatea.</p>
<p>Galdera Aizu, gure umea beti bere jostailuekin ibiltzen da; eskolara ere eramaten ditu; amonaren etxera badoa ere bai. Eta haurtxoteka horretara doanean, badauka bere jostailuak eramaterik hor jolasean ibiltzeko? Etxeko jostailuak eraman ditzake eta hor jolastu? Ala hori ezin du egin?</p>	<p>Erantzuna Ez, emakumea/gizona, ez; haurtxoteka ez da ludoketa bat. Jolas-kutsua badauka, baina helburua beste bat da: haurra liburuekin hastea, ohitzea. Beraz, ez dauka bere jostailuekin ibiltzerik. Ez da horretarako.</p>
<p>Galdera Aizu, nola funtzionatzen du haurtxoteka honen? Adibidez, niri ondo etorriko litzaidake ba, umea hor utzi eta erosketak egitera joatea edo zenbait enkargu egitea. Gurasook hori egiterik badaukagu? Joan gaitezke erosketak egitera edo zerbait hartzera? Ala hemen bertan egon behar dugu?</p>	<p>Erantzuna Aizu, hau ez da haurrak aparkatzeko leku bat; hau ez da haurtzaindegi bat. Haurrak hemen dauden bitartean, gurasoek edo zaintzaileek hemen egon behar dute beraiekin. Haurrak bakarrik ezin dira utzi. Ulertzen?</p>

## HAURTXOTEKA

<p><b>Galdera</b> Aizu, haurtxoteka hau umeentzako leku bat da, ezta? Begira, nik 8 urteko alaba daukat eta jakin nahi nuke ea hona etortzerik badaukan ala zaharregia den.</p>	<p><b>Erantzuna</b> Etxe honetan, lehenengo pisua, haurtxoteka da eta 6 urtetik beherakoentzat da. Beraz, 8 urtekoa bada, ez daukazu ekartzerik. Baina etxe honetan bertan, bigarren pisuan, badago 6 urtetik gorakoentzat irakurgela bat eta horra ekar dezakezu, nahi baduzu.</p>
<p><b>Galdera</b> Ni Lehen Hezkuntzako irakaslea naiz eta nire gelako haurrekin askotan ateratzen naiz eskolaz kanpo, eta gustatuko litzaidake nire gelakoekin hona etortzea. Etor al naiteke? Ba al daukat etortzerik gelako ume guztiekin? Ba al daukazue zerbitzurik eskola-umeentzat?</p>	<p><b>Erantzuna</b> Haurtxoteka hau ez da bakarrik bakarka eta gurasoekin etortzeko; ikastetxeetatik ere etor daitezke beren tutorearekin. Bideoteka eta entziklopedia onak ditugu eskola-umeentzat eta, beraz, badaukate etortzerik. Garaiz abisatu behar duzue txanda hartzeko. Eta nahi baduzue, goizez ere etor zaitezkete. Hobe, gainera, goizez etortzea.</p>
<p><b>Galdera</b> Aizu, nik jakin nahi nuke haurtxoteka honetara noiz etor naitekeen. Adibidez, umeak goizez ere etor al daitezke? Eta asteburuan? Ala arratsaldez bakarrik eta astegunetan dago irekita?</p>	<p><b>Erantzuna</b> Haurtxotekako ordutegi arrunta hau da: astelehenetik ostiralera: 17etatik 20etara. Larunbatetan, 10etatik 13etara. Dena den, goizetan, eskoletako umeak tutorearekin etor daitezke.</p>
<p><b>Galdera</b> Aizu, normalean, liburutegietan eta horrelako tokietan egoten da zerbitzu bat liburuak etxera eramateko. Kasu honetan ere umeek badaukate liburuak etxera eramaterik? Ala ezin da libururik atera hemendik?</p>	<p><b>Erantzuna</b> Jakina! Bai, bai; hemen ere badaukagu zerbitzu hori. Bai; haurrak nahi baldin badu, edo liburu bat asko gustatu baldin bazaio, etxera eraman dezake; bai, bai, badauka etxera eramaterik, baina horretarako txartela egin beharko du; bazkide edo sozio egin beharko du. Hori da baldintza bakarra.</p>
<p><b>Galdera</b> Aizu, nire alabak txakurtxo bat dauka eta ia beti berarekin ibiltzen da; eta jakin nahi nuke ea haurtxotekara doanean, bere txakur txikia eraman dezakeen. Ba al dago animaliak eramaterik haurtxoteka horretara? Nire alabak eraman al dezake bere txakurra?</p>	<p><b>Erantzuna</b> Zu haurtxotekako garbitzailea zara eta ez daukazu informazio jakinik; beraz, galdera guztietan zure iritzia emango duzu eta beste norbaitengana bidali.</p>
<p><b>Galdera</b> Aizu, haurtxoteka horretan bideoak ikusteko aukera ere ba omen dago, ezta? Eta umeek beren bideoak eraman ditzakete horra eta hor ikusi? Esaidazu: etxeko bideoak horra eramaterik ba al dago?</p>	<p><b>Erantzuna</b> Zu haurtxotekan zaude zure umearekin; ez zara bertako langilea eta ez daukazu informazio jakinik hemengo funtzionamenduaz; beraz, galdera guztietan zure iritzia emango duzu eta beste norbaitengana bidali.</p>

### 8.3. EZ DAKIZULA ZER GERTATU ZITZ AidAN

*Ariketa honetan ikasleek eurei gertatutako pasadizoak kontatuko dizkiote elkarri. Baina ez dute edozein eratan kontatuko. Erabiliko duten teknika «gurpil ikerketaria» izeneko izango da. Hona hemen teknika-ren zer-nolakoa.*

**Teknika:** Gelan aulkiz osatutako bi borobil egiten dira, bata bestearen barruan. Ikasleak elkarri begira jartzen dira eta barruko borobilean daudenek beren pasadizoak kontatzen dizkiete kanpoko gurpilean daudenei. Ondoren, kanpoko gurpilekoak leku bat mugitzen dira eskuinaldera eta entzundako pasadizoa kontatzen diete parean suertatzen zaizkienei. Kontaketa bukatutakoan, kanpoaldekoek berriro ere leku bat aurrera egiten dute eta oraingoan barruko gurpilekoak izango ditugu kontalari eta azkenik entzundako pasadizoa kontagai. Horrela egiten da bakoitzak hiru bat aldiz pasadizoa kontatu arte. Azkenean, jatorrizko pasadizoak eta azkeneko bertsioak kontrajartzen dira, zer alde dagoen ikusteko. Kontuan izan, lehenengoek izan ezik, gainontzekoek beti ere «X-kesan dit txikia zenean ...ELA», zehar estiloa erabili beharko dutela, azkenik entzundako pasadizoa kontatzeko orduan.

## 9.1. RITA HAYWORTH & JACK NICHOLSON

*Ariketa hau bikoteka egiteko da. Banatu, beraz, hurrengo bi orrietan dituzun biografiak ikasleen artean, irakurri, elkarri kontatu, eta ondoren erantzun behar dituzten galderei erantzun diezaieten.*

### A IKASLEA

#### JACK NICHOLSON

Jack Nicholson Neptune izeneko New Jersey estatuko herri txikian jaio zen, 1937an. Bere haurtzaroa ez zen oso zoriontsua izan; aita alkoholzalea zen eta etxetik alde egin zuen. Jack bere amarekin gelditu zen. Ama ile-apaintzailea zen, oso emakume posesiboa, eta etxeko egoera ekonomikoa nahiko txarra zen. Garai hartan Jack-en afizio handiena saskibaloia zen. Bere ametsa jokalaria izatea zen, baina bere altuera oso handia ez zenez, ideia alde batera utzi behar izan zuen.

Gaztetan hainbat lan ezberdin egin zituen, besteak beste sokorrista izan zen piszina batzuetan eta hipodromoan ere ibili zen sarrerak saltzen. Kasualitatez, Metro-ko marrazki bizidunen departamentuan sartu zen errekadista moduan. Hemen aldatu-ko zen bere bizitza. Egun batean produktore bat bere aurpegi espresiboz konturatu zen eta Arte Dramatikoa ikasteko gomendatu zion. Horrela, jende berria ezagutuz joan zen eta espektakulu munduan sartzen hasi zen, beti ere bide alternatiboetatik, Hollywoodeko giro komertzialetik at.

60. hamarkadan bere fisikoagatik gazte konformagaitzaren paperak egiten zituen gehienbat, beti ere zine konprometitu batean, estudio handietatik kanpo.

Salto handiena 1969. urtean eman zuen *Easy Rider* filmearekin. Bertan California-New Orleans-Florida bidea motorrez egiten duten arlote biren istorioa kontatzen da. Lagun baten bitartez pelikula honetako 3. papera lortu zuen. Papera txikia zen, tipo bitxi hauekin ihes egiten duen ilusio gabeko abokatuarena hain zuzen ere. Filmeak espero ez zen arrakasta lortu zuen, Nicholson-en papera goraiatu zen eta Oscar sarirako nominatua izan zen. Hemen-dik aurrerako historia ezaguna da: Chinatown (Polanski), Norbaitek kukuaren kabiaren gainetik hegan egin zuen (Forman), Dirdirapena (Kubrik), Postariak beti bi aldiz deitzen du (Rafelson)... Aktore konformagaitza, bere fisiko bereziagatik paper bereziak egitera kondenatua, graziaz edo desgraziaz.

**AIZU aldizkaritik hartua eta moldatua.**

## 9.1. RITA HAYWORTH & JACK NICHOLSON

### B IKASLEA

#### RITA HAYWORTH

Aktoresa hau jaio zenean Margarita Carmen Cansino zen. Brooklyn-en jaio zen 1918. urtean. Bere aita Antonio Cansino dantzari espainola zen, eta ama, berriz, dantzari irlandarra. Artista familia hau herriz herri ibiltzen zen bere espektakularekin. Margaritak 14 urte betetzen dituenean aitaren *bikote artistiko* bihurtzen da dantzari moduan, eta Margarita bere izen luzea moztu egiten du: orain Rita Cansino da. Beren aktuzio horietako bat Fox estudioetako lehendakariordeak ikusten du eta Ritaren itxura ederra ikusita *Dante's Inferno* filmean paper txiki bat eskaintzen dio. Kontratua sinatu eta 2. mailako pelikula egiten ditu Fox konpainiarentzat, hau Twentieth Century Pictures-ekin fusionatu eta Ritaren kontratua apurtzen den arte.

1937. urtean, Ritak 19 urte zituela, Edward C. Judson enpresariarekin ezkontzen da eta honek Columbia-rekin kontratua posible egiten du. Bere fisikoagatik, eskaintzen dizkioten paperak latinoak edo ekialdekoak dira. Senarrak orduan, Ritaren amerikani-zazioa hasten du. Lehenengo amaren abizena hartzen du, baina «y»-tarteatuz: orain Rita Hayworth da. Gero fisikoaren asuntua dator: hasteko, argaltzeko tratamendua jarraitzen du. Gero, depilazio elektrikoaren bidez, bekainetatik gertuegi zegoen ilearen

hasiera atzeratzen du eta kopeta zabalagoa lortzen du. Azkenik, bere ile beltzarana gorritzen du. Jantzi berriak erosten dizkio Judson-ek, eta errentagarritasun handiena lortzeko asmoz festa guztietara bidaltzen du emaztea, fotoetan agertu dadin.

Horrelako batean, Howard Hawks zuzendariak *Only Angels Have Wings* (1939) pelikulan paper bat eskaintzen dio Cary Crant-en ondoan. Takilan arrakasta handia izan zuen filmeak. MGM eta Paramount konpainientzat ere lan egiten hasi zen. Gero eta pelikula garrantzitsuagoak egin zituen, musikalak ere Fred Astaire-rekin. Fama bere eskuetan zuen.

Orson Welles-ekin ezkondu zenean, honen zuzendaritzapean *The Lady of Shanghai* egiten du, ile motz eta errubioarekin arrakasta berria lortzen du. Baina bere karreraren gailurrera Gilda filmearekin ailegatuko da 1946. urtean. Pelikula honekin betirako mito erotiko bihurtuko da. Baina goraino bultzatu zuen bezala, filme honek Ritaren bizitza hondoratu zuen. Gildatik aurrera ez dira pelikula inportanteak egongo, eta azkenik Gildak Rita irentsiko du. Orain dela hamar bat urte hil zen gaitz sendaezin batek jota.

**AIZU aldizkaritik hartua eta moldatua.**



---

## **II. OHITURAK, JAIK ETA SINESKERIAK**

---





## 1.2. INFORMAZIOA TRUKATZEN

*Ondoko orrialdeetan Euskal Herriko lau herritako jai-ospakizunei buruzko informazioa duzu. Banatu ikasleen artean, informazioa truka dezaten: noiz ospatzen diren jaiak, zein herritan, noizkoa den ohitura, ezaugarriak, etab.*

### HERRI PIRATAREN ALDARRIKAPENAK

#### Zabarrerren etorrera. Lezo

##### ZABARREREN HISTORIA

Zabarre XVIII. mendeko Lezoko pirata bat omen zen, Zabala-Larre leinukoa. Familia hau pirata eta bale-arrantzale leinu bat izan zen. Historiak dioenez, Joxe Zabala delako hau pirata eta bale-arrantzale zenez bietan ematen omen zuen denbora: aldi pirata, aldi bale-arrantzan. Garai hartan gose garai larriak igaro behar izan zituen gure herriak eta horrek bultzatuta-edo eman omen zion Zabarrek ere pirateriari.

Diotenez, garai hartan, Lezo Hondarribiaren menpeko herria zen. Hori zela eta Zabarrek ez zuen harreman onik Lezoko jauntxoekin eta Zabarre-aren leinua kontrabotere bihurtu zen herrian, Hondarribitik eta Espainiatik zetozen aginduei aurre eginez.

Hau horrela izanik, boteredunek ez zuten begi onez ikusten Zabarre. Behin, itsasoan zela, bere sendi osoa bera bizi zen etxean, oraindik zutik dagoen etxean, hormartetu zuten. Baina ez da hor amaitzen Zabarrerren historia. Gaur egun ere izpirituak etxean zehar dabiltzala esaten dute eta parapsikologoak ere ibili dira hori aztertzen.

##### ZABARREREN ETORRERA

Oso festa berria da eta Lezo kostako herri bat dela aldarrikatzekeo sortua

dela esaten dute. Diotenez, Lezoko kai zaharra Pasai Donibane ondoan dagoen leku batean zegoen. Zabarrek han uzten du galeoia eta bertatik Lezora joaten da txintxorro batean bi lagunekin. Hirurek urrezko txanponez betetako kutxa ekarri ohi dute eta kaira iristen direnean han izaten du zain herri osoa, pirataz mozorrotuta.

Zabarre herrira heltzen denean zain daudenek galeoi itxurako karroza batean sartzen dute pirata eta herriko kale nagusiraino eramaten dute.

Bere etxera heltzen denean balkoiatik kutxa zabaldu eta urteko irabaziak herritarren artean banatzen ditu, urre koloreko txokolatezko txanponak nonahi banatuz.

Aberastasuna banatu ondoren Zabarrek mezu bat irakurtzen die herritarrei herriko jaietan parte hartzeko eskatuz.

Mezua irakurri ondoren «Piraten-Bilkurari» hasiera ematen diote, jana, sagardoa, rona, saltoak, algarak... ezinbestekoak izaten direlarik.

Jai honetan parte hartzeko hiru baldintza bete behar izaten dira:

pirataz mozorrotuta egotea  
parrandarako prest egotea  
euskaraz hitz egitea.

**Egunkariatik jasoa eta moldatua.**

## 1.2. INFORMAZIOA TRUKATZEN

### LEKEITIO 12:00 A.M. ANTZARA EGUNA

Urtero-urtero lekeitiarrek goizetik ekiten diote antzara eguna ospatzea-ri. Goizeko hamaikak aldera herritar-rrak kalera ateratzen hasten dira, egun horretan ezinbestekoak diren mahoizko arropak soinean dituztela. Era berean derrigorrezkoa da, baita, antosina(1) paparretik zintzilik erama-tea.

Egun honetan edaria bidoietatik antosinetara isuri eta berauetatik eda-ten da. Bestalde, kalean azken ordu-ko erosketak egiteko ordua izaten da: bidoiak ez dira berez betetzen eta ka-limotxo prestatzeko ardoa eta coca-cola erosi behar izaten da.

Bitartean, umeak udaletxe aurrean pilatzen dira, erraldoiak eta buruhaun-diak noiz irtengo zain. Hamaiketan puntuan bolanderek ospakizunak has-tear daudela iragartzen dute, eta han-dik gutxira txistularien hotsek betetzen dituzte bazter guztiak. Hauen atzetik erraldoiak eta buruhaundiak etortzen dira batzuen gozamenerako eta beste batzuen izurako.

Batzuk hondartzan potinei (2) az-ken ukituak ematen dauden bitartean, gazte koadrilak enparantzako kios-koaren inguruan elkartzen dira. Han

hamabietatik aurrera potinen irteera-ordena zozkatzen da. Hortik aurrera koadriletako kideek euren taldearen izena eta egokitu zaien zenbakia ma-rrazten dute alkandoretan eta edozein bazterretan. Erritualak amaituta, jaiak bere bideari ekiten dio.

Dena prest dagoenean antzara festa hasten da. Potinek banan-ba-nan eta zozketan suertatutakoaren arabera martxan jartzen dira. Potin bakoitzaren brankan(3) gazte bat joaten da zutik eta antzarak zintzilik dauden lekutik igarotzean antzararen gorputzari tinko heldu eta airean ge-ratzen da. Bitartean lehorretik sokari tink eginez gora eta behera erabil-tzen dute antzara, gaztea helduta duelarik, gaztea askatu edo eta an-tzararen lepoa kraskatu arte.

Giro aparta izaten da, barre-alga-rak, adore-oihuak eta abarrek bete-zen dute ingurua eta gazteren batek antzararen lepoa haustea lortzen duenean txalo zaparradak nagusi-tzen dira.

Antzara jokoa bukatu ondoren fes-tak aurrera egiten du alaitasun ede-rran.

***Egunkariatik jasoa eta moldatua.***

(1) antosina:ura edo edateko erabiltzen den metalezko ontzia.

(2) potina:tamaina ertaineko txalupa.

(3) branka: txaluparen aurreko aldea.

## 1.2. INFORMAZIOA TRUKATZEN

### AHATE-JOKOAK. SARA

Arratsaldeko lauretan hasten dira. Aldez aurretik hildako ahate bat zintzilikatzen dute soka batetik eta gazteak zaldi gainean igarotzen dira aha-teari lepoa ebakitzeko asmoz. Ahatea hilik egoten da eta Sarako nagusienek ere ez dute gogoratzen bizirik inoiz zintzilikatu izan denik.

Gerra artean joko hau desagertu egin omen zen eta gerra ostean berriro ere hasi ziren gaur arte. Lehen esan dugun bezala, jokootan eta antolakuntza lanetan ere herriko gazteek hartzen dute parte batik bat.

#### **Ahate-jokoari buruzko zenbait xehetasun**

Diotenez, Erdi Aroan heldu zitzaien joko hau Sarara eta euskalduna ez izan arren Charles IX. Lapurdin egon zenean, 1565. urtean, bereganatu zuten lapurtarrek joko hau. Mende bat beranduago Pierre Lancrek,

Euskal Herrian egin ziren sorgintzari buruzko auzietan, debekatu egin zuen ahate-jokoa, epaileek magian iniziatzeko ohituratzat baitzuten.

Antza denez, zintzilik jartzen ziren ahate edo antzarek herriak baztertu nahi izaten zuen zorte txarra itxuratzeko zuten. Ahate edo antzara hauek gaitz handien irudipena ziren: gose-teak, gerlak, izurriteak, legen beltza...

1924. urte inguruko testuen arabera ahateak aldez aurretik erdi hilik jartzen ziren eta garai honetan hasi omen ziren ahateak erabiltzen, antzarak baino merkeagoak baitziren.

Bestalde, diote Sara dela gaur egun ohitura honen lekuko bakarra eta Napoleonen garaia ezkerroztik urtero ospatu izan ohi dela festa hau, hutsik egin gabe, 1908-1914 arteko gerran izan ezik.

***Egunkariatik jasoa eta moldatua.***

## 1.2. INFORMAZIOA TRUKATZEN

### HERRI OSOAREN ERAKUSTALDIA AMA GUADALUPEKOAREN JAIK

Goizeko bederatzietan hasten da Alardea Gernikako Arbolaren Enparantzan. Minutu batzuk lehenago konpainien kolorez betetzen da enparantza, eta tropa guztiak prest daudenean Arma Plazarantz abiatzen dira.

Ohitura denez, Alardea hasi aurretik konpainiak kale eta auzoetan biltzen dira, eta bakoitza bere kantineraren bila joaten dira bere etxera, goizeko zortziak alderako. Bertan kantinerak gosaria eskaintzen die tropako gizonei eta ondoren Alde Zaharreko harresiperantz joaten dira, han Alardeari ekiteko.

Hatxeroak joaten dira lehendabizi desfilean. Herriko bandaren musika-doinuak urrundik entzunik, seriotasun handiz eta pausuak poliki emanaz igotzen dira Arma Plazarantz.

Atzetik danborrada eta banda joaten dira, azken honek jotako Titi Bilitiren erritmoari jarraituz. Zaldizkoen ondoren Jaizubia, Arkoll eta Akartegi auzoetako tropak joaten dira eta ondoren herrikoa.

Honen atzetik Hondarribiko hiru auzotako konpainiak pasatzen dira: Montaña, Semisarga eta Kostakoak.

Azkena Arteria, frantziarren aurka-ko gerran erabilitako kainoiekin.

Arma Plazan, kainoien eztrandak eta eskopetero guztien tiroak airera bota eta berriro ere Kale Nagusian behera abiatzen dira, Guadalupeko elizarantz.

Guadalupera iritsi eta meza ederra entzun ondoren, desfile ederra egiten da. Oso ederra izaten da mendian egindako desfile hau eta goizean Kale Nagusian igotzen eta arratsaldean Arma Plazatik jaisteko egiten direnekin esanguratsuen izaten da askorentzat.

Bazkalostean ere jarraitzen du jaiak. San Pedro kalean barrena bi milatik gorako desfilea izaten da eta jendeak espaloiak betetzen ditu eta kantineren aldeko oihuak entzuten dira.

***Egunkariatik jaso eta moldatua.***

## 2.1. PLANTXATZEKO GOGORIK EZ

- Lurdes.**  
 —Zer?  
 —**Plantxatuko al dizkidazu galtza beltzak?**  
 —Zer, orain?  
 —**Bale, bale; moldatuko naiz.**  
 —Ez, ez; ekarri; plantxatuko dizkizut.  
 —**Ez, ez, ez; mutur horrekin ikus-tea baino nahiago dut galtzontzilotan irten.**  
 —Jo, Ximon! Eta zer nahi duzu, e? Zuk nahi duzuna nahi duzunean eta gainera kantari egitea? Bueno, horretarako hobe zenuke neskame bat hartzea.  
 —**Aizu, Lurdes: uste dut modu onean eta mesedez eskatu dizudala, ez? Ez dut uste horrela jartzekoa denik.**  
 —Ez, baina tantaka-tantaka bete egingen da ontzia, Ximon.  
 —**Zer esan nahi duzu?**  
 —Ba, ez dakit. Batzuetan iruditzen zaidala oso jarrera komodoa hartzen duzula, «de gran señor», ulertzen? ... Beti, sistematikoki, e? Eta ez dudala etxeakoandre-bokaziorik, Ximon.  
 —**Hori badakit, Lurdes; baina ez dakit ... hala ere badira gauza batzuk ba, ez dakit ... zuk nik baino hobeto egiten dituzunak.**  
 —A, ja!
- eta horiek zuk egitea, ba, normala da, edo normala iruditzen zait.**  
 —Bai, ba; klaro; baina...  
 —**Gainera, etxean egin beharreko astolan guztiak nik egiten ditut, eta ez pentsa nik asto-komplexurik daukadanik.**  
 —Ai; badakit, Ximon; jo... eske... batzuetan hasten gara hizketan eta kristonak esaten dizkiogu elkarri. Jo... nola esango dizut... eske nik... nik ez dut sentitzen esan dizudana. Begira: rolen asunto hori gure artean gertatzen denik... ba, begira, ez dut uste. Jo... baina... eske plantxatzeko batere gogorik ez neukan; ez? Eta momentuan amorrua eman dit. Ai; bueno, baina bueno, begira, e? Ahaztu, ahaztu esan ditudanak; e, Ximon? Bale; bale; ekarri galtza horiek eta segituan plantxatuko dizkizut; benga!  
 —**Ba, ez, ez; utzi, Lurdes; utzi.**  
 —Ez, ekarri, Ximon.  
 —**Egia esan, ni ere pasatu egin naiz.**  
 —Ez; benga; ekarri galtzak.  
 —**Ez; eta gainera, zer arraio! Ez al dute esaten orain zimurrak politak direla? Ba, horixe: gora zimurrak! Eta punto.**

### 3.1. KONTRABANDISTEN KONTUAK

*Banatu ondoko bi testuak ikasleen artean, irakurri ondoren elkarri kontu diezaioten*

#### A IKASLEA

#### KONTRABANDISTA IZANDAKO BATEN AITORPENAK (I)

Kontrabandista bat dugu gaurkoan solaskide. Agustin du izena, berrogei bat urte ditu eta orain, beste edonor bezala, bere lanetik bizi da. Soldadutzara joan arte jo eta ke aritu zen kontrabandoan, arriskuan askotan. Hargitx ongi ezagutzen ditu Nafarroako muga inguruko mendibide eta bidexidor guztiak eta ez du argirik behar gauzez ibiltzeko.

Portugaldarrak ekartzen eta mugaz bestaldera pasatzen aritu zen bolada luze batean, baita kontrabandoko kafea Portugaldik Badajozen sartzen ere. Lau kotxe galdu zituen, gartzela ezagutu zuen, tiroketa batean doi-doi atera zen onik. «Gizona beldurtia da bai, ezin uka, baina bere odolak eta korajeak ere ia ez du mugarik», dio Agustinek.

#### Kontrabandoa mendiz eta gauzez

Garai bateko kontrabandoa oinez egiten zen. Gauza asko pasatzen zuten mugaz bestaldetik isilka eta guardia zibilen ezkutuka: plastikoa, puntilla, rodamenduak, bizikleta-piezak, auto-kubiartak eta abar. Kontrabandomota honek 1962ra arte iraun zuen.

Iparraldean, mugaren inguruan, honantz pasa behar zen jeneroa zen-

bait baserri eta borda jakinetan gordetzen zen. Mugalariek gauzez alde honetara pasatzen zuten. Bigarren ekinaldi batean jenero hori bizkar gainean hartu eta Oiartzungo Aritxulegi aldera eramaten zuten, Enderlatsa eta Irungo kontrola saihestuz.

Normalean nagusi batek hamabi bat gizon hartzen zituen. Joan-etorrian zortzi bat ordu ematen zituzten eta hirurehun pezeta kobratzen zuten. Dirua zen hori 1960 urtean. Gizon horiek talde bat osatzen zuten. Lehendabizi gidari bat joaten zen aurrean, askotan zakurrarekin, guardia zibilen arrastoak usnatuz badaezpada ere, zamarik gabe. Gero binaka-binaka besteak, bikotetik bikotera bost bat minutuko tarteak utziz. Zama hogeita hamabost bat kilokoa izaten zen, eta askotan traketsa, eramaten zaila, bizikleta-piezak eramatea adibidez.

Guardia Zibilak askotan bazekien bidaiaren berri eta ezikusia egiten zuen. Bestetan, maltzurkeriak eraginda, aurrean zamarik gabe zihoanari pasatzen utzi eta besteei erasotzen zieten oihuka eta tiroka. Hamaika aldiz joan behar izan zuten ihesi pake-teek, toki jakinen batean garo artean edo sastrakan ezkutuan gordeta.

### Portugaldarrak Parisa isilka ihesi

Hauek garraiatzen aritu zen jo eta ke Agustin hiru bat urtetan. Ez zuten nonbait lanik aurkitzen edo ez zuten Afrikako kolonietara zerbitzera joan nahi izaten. Hori zela eta, asko eta asko joan ziren Frantzia aldera lan bila, eta hori lortzeko kontrabandistez baliatu ziren.

### Lehendabizi txofer, gero bere kontura

«Lehendabizi besteren kontura hasi nintzen txofer» dio Agustinek. Hau zen nire egitekoa: «Fuentes de Oñoro aldera joan, han portugaldar taldea jaso eta hemengo muga ondora ekarri. Lau mila pezeta ematen zidaten joan-etorri bakoitzagatik eta bidaiaiko gastuak aparte.»

1966an, ofizioa ikasi eta gero, bere kontura hasi zen hori bera egiten. Horretarako lagun bat aurkitu zuen, irabazia erdibana jarri zuten. Lagunak muga pasatzearen ardura izaten zuen; Agustinek, berriz, portugaldarrak ekartzearena.

Tratua portugaldarrak beren lurraldetik Pariseraino eramatea zen. Hamalau mila pezeta eder ordaindu behar zituen hori nahi zuenak. Zazpi mila pezeta Portugaldik ateratzeaga-

tik. «Guk biok beste zazpi mila pezeta eskatzen genuen Iparraldera pasa eta Parisa eramateagatik. Beraz, bakoitzak 14.000 pezeta ordaindu behar zuen», dio Agustinek.

### Zenbait oso gaizki portatu zen

«Gauza guztietan bezala, kontrabandoan ere badira betebeharrekoak eta hitza bete egin behar da. Eta Pariserira eramateko tratua egin baldin bada, Pariseraino eraman behar da», dio Agustinek.

Gehienak ondo portatu omen ziren, baina gauza itsusiak eta negargarriak ere gertatu ziren. Frantziako partean zeudela esan, eta artean muga pasa gabe, paperik gabe, galduta utzi.

«Gartzelan ezagutu nuen alproja hura —esan digu Agustinek—. Ni bezala hura ere portugaldarrak garraiatzen aritzen zen. Behin 78 iheslari portugaldar sartu zituen kamioian Badajozeko partean. Hamar orduko bidaia egin ondoren, Madrilen bota zituen gaixo haiek. Ez dago horretarako eskubiderik. Oso gaizki egina dago». Agustinen ustez, gehiegi hitz egin da horretaz, horrelakoak gutxi gertatu baitziren.

**58. HABE-tik hartua eta moldatua.**

### 3.1. KONTRABANDISTEN KONTUAK

#### B IKASLEA

#### «GAUEZ GAU-LANEAN ETA EGUNEZ LO»(ETA II)

Bidasoa inguruan garai hartan guardia zibil askok hartzen zuen parte kontrabandoan, nola edo hala, beste aldera begiratzuz edo ez ikusia eginez. Noizean behin azaltzen zen gaztetxoren bat galoiak irabazi nahian. Laster asko edozein aitzakiaz bidaltzen omen zuten beste nonbait. Bakea nahi zuten nonbait...

Okerrena salaketen kontua izaten zen. «Ezin eraman asko gertatzen zen kontrabandisten artean, batzuek besteek baino suerte hobea zutelako, edo gehiago irabazten zutelako edo .... Horregatixe sartu ninduten ni ere gartzelan. Norbaitek ikusi ninduen Ultzama aldean, portugaldar talde bat herri inguruan uzten. Berehala dantzatu zuen telefonoa, eta ni etxera orduko han nituen guardia zibilak. Ezaguna nuen oso salatzailea. Hori kaboaren ahotik jakin nuen, nik oso laguna bainuen kabo hura», esan digu Agustinek.

«Hiru hilabete eta erdi eman nituen itzalean. Handik atera eta bi egunera berriro jarraitu nuen portugaldarrak lehen bezalaxe garraiatzen».

#### **Kontrabandoko kafea Portugaldik Espainiara**

Oso negozio ona omen zen. Muga inguruko mendietara kafea zaldiz eramaten zuten hangoek, eta Caceres aldean

gorde eta saldu Agustinek. Bostehun kilo pasatzen zituen ekarrialdi bakoitzean. Hogeita hamabost pezeta kiloko irabazten zituen berak. «Ez zegoen gaizki, ezta?» dio Agustinek. «Kontrol batean kasurik egin ez eta atzetik tiroka hasi ziren guardia zibilak Montijo herrian. Zortzi zulo egin zizkieten nire autoari, niri ez ziztaidan deus gertatu».

Kafe hori Angolatik ekarria zen eta oso merke saltzen zuten.

#### **Gizona arriskuan zaildu egiten da**

Horrelako lanetan aritzeko sasoi behar da eta osasuna, tenore txarretan ibili behar baita kontrabandoan. «Gauz gau-lanean, eta egunez lo» esaten dute Beran eta Lesakan. Suerte txarreko gertaerak izaten dira maiz askotan. Baina gizonak aurrera egin behar du beti, ez du kokildu behar. «Guardia zibila aurrez aurre baldin badago eta zu autoan, eta beste irtenbiderik ez baldin badago, primera sartu eta autoarekin guardia zibila bazterrera botatzen saiatu behar duzu; gero gerokoak», dio Agustinek.

Arian-arian odola hoztu eta azala gogortu egiten omen da. Jakin egin behar norekin ibili, zer esan, zer isilik gorde. Jakin egin behar da irrifartsu hitz egiten, nahiz eta gogorik eduki ez. Jakin egin behar guardia zibil batekin afaltzen ere.



### Lau Peugeot galdu zituen

Autoa beti Iparraldean erosten zuen Agustinek. Indartsua eta gogorra behar izaten zuen, eta han hemen baino merkeago saltzen zituzten. Esate baterako, 1965ean Peugeot 404, bigarren eskukoa, 80.000 pezetatan saltzen zuten. Mugaz alde honetara ekarri, batzuetan edozein matrikula jarri eta aurrera, batere agiririk gabe.

«Arriskuan onik ateratzeko beharrezkoa da auto gogorak edukitzea, bestela jai dago, dio Agustinek. Guardia zibilen kontrol batean bi gauza egiten dira: aurrera egin eta guardia bazterrera bota edo kotxea han utzi eta ihes egin».

«Behin horrela utzi behar izan nuen kotxea portugaldarrez beteta. Beste behin, askotan bezala, «Fuentes de Oñoro»rantz abiatu nintzen. Zita 457 kilometroan genuen. Esandako orduan heldu nintzen eta han ez zegoen portugaldarren arrastorik. Bitartean autoarekin hara eta hona nenbilela, guardiak azaldu ziren, norbaitek salatuta noski. Une hartan bertan azaldu zen portugaldarren taldea. Nik aurrera egin nuen, portugaldarrek atzera, eta besteak tiroka. Ez dakit nola baina salbatu nintzen. Hurrengo goizean, «como si no», berriro mugarantz joan nintzen eta ekarri nituen bezperan ekarri behar nituenak»

**59. HABEtik hartua eta moldatua.**

#### 4.1. GABONAK MUNDUAN

*Hona hemen ariketa hau egiteko ikasleen artean banatu behar dituzun testuak. Testu bana eman eta gogorarazi ikasleei ez dutela zertan zehaztasunik jaso, erantzun beharko dituzten galderak oso orokorrak izango dira eta.*

##### **AUSTRALIAN, AIRE AKONDIZIONATUAREKIN AFALTZEN**

Danel Agirresarobek 8 urte ditu eta Zarauzko Ikastolan dabil aurtengo udaberriaz geroztik, baina Australian jaio zen eta han egin ditu oraindai-noko Eguberriak. «Han euskaldun koadrila handi bat juntatu eta jatetxe batean afaltzen genuen, aire akondizionatuarekin noski, han uda orduan hasten baita. Baina ni hara orain dela 36 urte joan nintzenean, ez zegoen euskaldunik eta triste pasatu nituen lehen urteak, kontatzen du aitak. Danelen familiak granja handi bat du Australiako iparraldean, Quisland eskualdeko Ea herrian eta azukre kainabera produzitzen dute. «Kanguroen lekua da —adierazten du amak— eta etxeraino hurbiltzen dira. Oso leku aberatsa da. Mariskoa, haragia eta arraina aukeran dago eta Eguberritan denetik jaten da. Gero txanpaina edan eta euskal kankak kantatzen genituen. Han jendeak, batez ere gazteek, kanpoan gaupasa eginez ospatzen dute». Amak 15 urte «bakarrik» egin ditu Australian, baina senarra eta Danel ohitu ezinik dabilta hemengo bizimodura.

**IKASTOLA aldizkaritik hartua eta moldatua.**

## **IRENE LESZCZYNSKA: «WALESAREKIN KOINTZIDITZEN NUEN EGUBERRI GAUEKO MEZATAN»**

Irene Leszczynska Gdansk-ekoa da, Walesa Poloniako lehendakariak garai batean zuzentzen zuen Solidarnosk sindikatua jaio zen hirikoa. Baltiko itsasoaren ertzean dago eta untzitegi famatuak ditu. Irenek lau urte daramatza Gasteizen. Alexander du semea. Eguberriek Polonian kutsu erlijioso izugarria dute, Eliza izan baita bi mendeotan erresistentzia kultural eta politikoaren sostengu.

«Bizpahiru aste lehenago ogi berezi bana bidaltzen dio parrokiak familia bakoitzari eta ogi hori belar ondu piska baten gainean gordetzen da, plater batean, nolabait Belengo jaiotza sinbolizatuz. Eguberriako zeremonia arratsaldeko 5ak aldean hasten da, zeruan lehen izarra agertzen denean. Familia bildu eta edaderik gehien duen pertsonak banatzen du ogi hori beste guztien artean eta bakoitzak hartzen duen zatia ere beste guztiei banatzen die, zorionak eta besarkadak elkarri emanaz. Etxe guztietan plater bat gehiago jartzen da, baldin etxerik ez duen norbait agertzen bada jan dezan. Polonian ez da egun horretan haragirik jaten, baina hamabi plater izaten dira afaritarako, arrain klase ezberdinak, raviolien antzeko plater bat, perretxikoak, konpota eta mitxoleta haziarekin hornitutako gazta tarta bat. Festari amaiera emateko denak elizara joaten dira. Maiz, ordubete lehenago joan behar izaten da txanda hartzera, bestela ez baita lekurik egoten. Gu Walesaren auzo berekoak gara eta harekin kointziditzen genuen elizan», esan zuen.

***IKASTOLA aldizkaritik hartua eta moldatua.***

### **GEALLEN FRANCOVIC: «USAN JATEA BAINO INPORTANTEAGOA DA, FAMILIA OSOA BILTZEA»**

Allen Francovic Milwaukee-en jaio zen, Wisconsin estatuan eta 84az geroztik Bilbon bizi da, nahiz eta urte batzuk Austrian egin dituen eta beste pare bat Bangla Desh-en. 8 urteko semea du, Alexander. «EEBBetan ez da hemen bezala afaltzen. Gu familia osoa biltzen ginen, urte batean amaren aldeko familiarekin eta hurrengoan aitarenarekin. Kontua etxea ahalik ederren jartzea izaten zen. Osaba arotz batek egurrezko Santa Klaus bat fabrikatzen zuen trineo eta guzti, teiatuan jarri eta disfrazatu egiten zen galtzerdietan jostailuak uzteko. Urte batzuetan Austrian bizi izan gara eta han ere Eguberriak ikusgarriak dira, trineoetan joaten baitira familiak bisitak egitera. Bangla Desh-en, aldiz, musulmanak dira eta enbaxadan biltzen ginen».

***IKASTOLA aldizkaritik hartua eta moldatua.***

### **REBECA TOLENTINO: «ETXEZ ETXE KANTUAN ETA ESKEAN ATERATZEN DIRA UMEAK MANILAN»**

Rebeca Tolentino orain dela 12 urte etorri zen Manilatik Elgoibarrera. Orain bi alaba ditu, bat hiru urtekoa eta 17 hilabetekoa bigarrena. Bere familia hamabi seme-alaba dira eta hiriburuko auzo batean bizi dira. «Nagusientzat festa handiagoa da Urte Berrikoa, baina umeek nahiago dituzte Eguberriak. Astebete lehenago karta bana bidaltzen zaie familiarteko, adiskide eta auzokoei, beren sariak eta erregaloak prestatzen has daitezten eta eguna iristean eskera ateratzen dira, etxe bakoitzean bizpahiru kanta kantatuz. Ingelesez eta tagaloz kantatzen dira kantu horiek. Nik tagaloz egiten nuen etxean eta eskolan ikasi nuen ingelesez. Orain kanta batzuk erakutsi dizkiot tagaloz Melaniri, baina ez naiz hasiko hizkuntza erakusten, nahikoa baitu euskara, gaztelera eta ingelesarekin. Afaritarako zerrikume bat erretzea izaten da hango lujoa. Gure sukaldea txinoaren antzekoa da eta saiatzen naiz hemen ere hango zerbait prestatzen».

***IKASTOLA aldizkaritik hartua eta moldatua.***

### **BARBARA MORALES: «KUBAN EGUBERRI ETA URTE ZAHARRA BATEAN OSPATZEN DITUGU»**

Barbara Morales Guanabacoan jaio zen, La Habanatik 25 kilometrora, orain dela 27 urte, eta orain Lekeition bizi da ezkondata. Bi urteko alaba du. «Gu 9 anai-arreba ginen, baina ez genuen Eguberririk ospatzen, sozialismoa eta kontu horiek direla medio. Urte Zaharretan doblea ospatzen genuen eta kito. Gau horretan afari berezia izaten zen. Zerria erreta yuca eta gri-arekin jatea derrigorrezkoa da egun horretan. Gero kale bereko bizpahiru familia patio batean bildu eta gaupasa egiten da, irrati-kasete handi bat martxan jarri eta kantuan, ron edaten eta dantzan. Han aitite-amamek ere dantzan egiten dute, hori odolean ekartzen da eta gure alabak ere odolean dakar. Bere gelatik telebistan martxa piska bat duen musika entzuten badu, etorri eta ipurdia mugitzen hasten da».

*IKASTOLA aldizkaritik hartua eta moldatua.*

### **LAURINDO MIJI: «AMAK ILEA MOZTU ETA ARROPA BERRIA ESTREINATZEN ZIGUN EGUN HORRETAN»**

Laurindo Miji Angolako ekialdekoa da, Lunda hirikoa. Eskualde horretan daude diamante meategiak, eta Zaireko Katangan hitz egiten den hizkuntza bera hitz egiten dute. Hitz batean mugaz bi aldeetan herri bera bizi da, «lunda-txokue» herria eta eskualde honetan burruka egin zuen Lubunbaren gerrila mugimenduak. 14 urte daramatza Iruñean eta bi seme ditu, Eder 8 urtekoa eta Hodei bi hilabetekoa.

«Eguberriak han inportazioko festa dira, kolonizazioak ekarria. Hala ere, familiaren festa bezala ospatzen da. Hango familiaren kontzeptua hemengo baino zabalagoa da eta klan osoa hartzen du. Ni hiritarra naiz, baina egun horretan aitona-amonon herrira joaten ginen. Amak egun horretan ilea moztu eta jantzi berriak estreinatzen zizkigun eta aitona-amonon etxean animalia bat hiltzen zen, hemen zerria hiltzen den bezalaxe, zeremonia luze batekin. Antxumea izaten zen gehienetan eta suaren inguruan afaltzen genuen, antxumea eta ehizeko zerbait. Ondoren «funs» izeneko tarta bat jan, bertako tuberkulo batekin egina eta platanoa edo artoarekin egindako edari alkoholikoak edaten ziren. Egundorretan aitona aulkian eseritzen da eta lurrean eserita dauden haurrei klanaren historia eta tradizioaren gordeleku guztiak esplikatzeko dizkie. Dena den, gurean Gabonetako jaiak baino esanahiagotsuak dira urtaro-aldaketa festak».

*IKASTOLA aldizkaritik hartua eta moldatua.*

**JAMES JONES:»URTERO HAURROI ARGAZKI BAT EGITEN ZIGUTEN»**

James Jones Idahokoa da. 74an etorri zen Oñatira ikastaro bat egitera eta hemen geratu zen. Zarautzen bizi da eta hiru seme ditu: Andoni 7 urtekoa, Danel 6koa eta Mikel 5koa, hirurak ikastolan. «Agian nire ama alaba bakarra delako izango zen, edo aitak anaiak urrun zituelako, baina Eguberrietan auzoko guztiak biltzen ziren gure etxean. Dena apaindu eta buffet bat zerbitzatu ohi zen. Haurroi eskaileran argazki bat egiten ziguten urtero eta nagusiek edanarekin animatu eta kantuan egiten zuten piano zahar baten bueltan. Nik eskuz egindako apaingarri haiek ekarri nituen eta etxean jartzen ditut. Olentzero eta Santa Klaus etortzen dira gurean, semeak han jaiok baitira».

*IKASTOLA aldizkaritik hartua eta moldatua.*

## 4.2. INAUTERIAK

*Aurreko ariketan bezala, oraingoan ere, bi testu dituzu ikasleen artean banatzeko.*

### INAUTERIAK (I)

#### Basilea

Suizan dago hiri hau; Alsaziaren mugan. Hizkuntz eta ohituraz alsaziarak dira basileatarrak. Inauterietan oraindik, oso festa berezia antolatzen dute, agian Maskaradaren jatorri berdintsuko festa. Festaren izena «Fasnacht». Inauteri garaian ospatzen da; hain zuzen astelehenean goizaldeko lauretan hasi eta hausterre egunean bukatzen da.

Astelehen goizaldean Basileako argi guztiak itzali egiten dira eta jendea pixkanaka biltzen da kalean taldeka eta ixiltasun osoa gordez. Elizako kanpaiak jotzearekin batera, talde bakoitzak bere paperezko farolak pizten ditu eta aldi berean danborrak eta xirulak jotzen hasten dira. Talde bakoitzak bere musika aukeratzen du eta saiatzen da beste taldekoak ixilarazten.

Taldekideek mozorro berdina daramate eta mozorro hauen ezaugarri nabarmenena erabiltzen dituzten maskarak dira. Aurpegia eta burua maskaraz estalirik eraman behar di-

tuzte, antzik ematen ez zaielarik gizon ala emakume ote diren.

Burua bezalaxe, gorputza ere guztiz estalirik eraman behar dute derri-gorrez, halakoa baita hango ohitura.

Mozorrotzeko erabiltzen dituzten gaiak gehienetan satirikoak dira eta kantuz eta olerkiz adierazten dizkiete ikusleei beren burlak.

#### Venezia

Hiri honetan inauteriak famatuak egin dira erabiltzen dituzten maskarei esker. Izan ere, gordetzen dituzten erritoak baino, *Comedia del Artek* erabili izan dituen maskaren erabilpenak bereziarazten ditu Veneziako Inauteriak. Hala nola, *Arlequino*, *Pantalone* edo eta Erdi Aroko antzerkiaren beste pertsonaien maskarak.

Tailer dexente dago Venezian maskarak egiten dituenak. Forma bereziaz gain garrantzia hartzen dute, maskarak egiteko erabiltzen dituzten materialengatik: zeta, larrua, urrea...

**DV argitaratua. Moldatua.**

## INAUTERIAK (II)

### Tolosakoak, zaharrenak

Tolosako Iñauteriak dira, Gipuzkoan fama eta arrakastarik handiena dutenak. Festa hauen lehendabiziko datuak 1600 urtearen ingurukoak dira. Ez dira datu deskriptibo gehiegi gordetzen; baina badirudi zezen eta mozorro festak zirela orduan ere.

1764 urtera arte Iñauteriko igande eta astearteetan, herriko agintariak herritarrekin batera egiten zuten dantza herriko plazan, erregearen debekua etorri arte, hain zuzen.

1808 eta 1813 bitartean, Napoleonen Gudarostea Tolosan zegoelarik ere, ez ziren Iñauteriko festak alde batera utzi. Frantsesek tolosarrek bezalaxe hartzen zuten parte festaren antolamenduan.

1889koa da Sardinaren lehen ehorzketa. Plaza berrian egin zen eta plaza hau paperezko farolez argitu zuten egun honetarako. Danbor banda handi bat zuten lagun. Baco jainkoa karroza handi batean begira zegoen, hamabi suziri eramaille inguruan zituelarik.

Sagardotegietan prestatzen ziren festa eta parranda handienak. Tripa bete eta busti ondoren, noski. 1924an «Etxe Aundi» sagardotegitik atera zen gizon talde batek osatu zuen Tolosako lehenengo txaranga. Orduz gero beste asko osatu dira eta festaren ezinbestekoak bihurtu.

Urte batzuetan debekatu egin zituzten Iñauteriak; baina tolosarrek ekin zioten festari Iñauteri izena eta «Udaberri Festa» hartuz. Mozorroak debeketzen zituztela, beraiek arropak alderantziz jazen zituzten; ezin zituztela alderantziz jantzi, beren artean egiten zituzten arropa trukaketak. Beraz, tolosarrek maite eta bizi duten festa da Iñauteria.

Egun bakoitzak bere programa berezia baldin badu ere, gehien nabarmentzen diren ekintzak honako hauek dira:

- Sokamuturrak eta zezen suzkoak.
- Txarangak.
- Karrozak.
- Tolosarrek, lau trapu erabiliz, mozorrotzeko duten trebetasuna.

***Diario Vascon argitaratua. Moldatua.***



## 5.6. TXIKITAKOAK

*Hona hemen txikitako kontuak gogora ekarriko dizkizuten Andu Lertxundiren bi testu. Banatu itzazu ikasleen artean.*

### SUKALDEAN GOXO-GOXO

Ez dira urte asko gure etxe eta kaleetako bizitza erabat ezberdina zela. Kalleko giroa zeharo ezberdina zen, politika arazoek, orain ere badaude baina beste era batekoak, dena baldintzatzen zutelako. Euskara ez zen ondo ikusten eta urte batzuetan galarazia egon zen. Zer esanik ez eskoletan. Euskaraz egiten zuena argi ibil zitekeen. Eta etxeetan, berriz, ez zegoen gaur ezagutzen ditugun, eta normalak iruditzen zaizkigun, komodidaderik. Urte batzuetatik hona egoera soziala zeharo aldatu da. Baserrietan bizitzetik jendea kalera etorri da; baserri girotik urbanora pasatu gara. Baina ez ahaztu oraindik ere lehengo erara bizi den jendea badagoela.

Gure etxeetan gauza asko aldatu da azken urteotan, baina sukaldea izango da, seguru asko, gehiena aldatu den etxeke gela.

Lehenik, sua. Butanorik ez, eta etxe guztietan ekonomika deitzen genion su bat zegoen. Egurra, txiribildua eta ikatza erabiltzen zituen gure amak goizean goiz sua pizteko eta suaren txapa gainean egosten eta prejitzen ziren janariak, neguan nahiz udan. Ontzi express-ik ez zegoen artean, eta babarrunak egosteko amak goiz osoa pasa behar izaten zuen babarrunak zaintzen... gainerantzeko etxeke lan guztiak deskuidatu gabe, noski.

Ez zegoen izozkailu edo frigorik. Balkoietan egoten zen «freskera» deitzen genion armariotxo bat jakiak gordetzeko, baina han ez zuten egun bat baino gehiago irauten. Etxe aberatsetara izotz partitzailea joaten zen

izotz puska handiez. Sartzen zituzten izotz puskak freskeran eta jakiek gehiago irauten zuten.

Arropa garbitzeko tresneria amaren eskuak ziren. Arropa jo eta jo xaboi handi batez eta honela garbitzen zuen guk hain erraz zikintzen genion arropa. Aspiragailu, ontzigarbitzaile eta antzekoak izango zirenik ere arrastorik ez genuen izan. Erratza edo lejea lurra pasatzeko, eskuak ontziak garbitzeko... Eta dena amak egin behar, gaizki ikusia baitzegoen orduan aitik etxeke lanetan laguntzea.

Garai hartantxe sartu zen gure etxe askotan lehendabiziko irratia. Irratirik ez zegoen etxeetatik jendea irratidun etxeetara biltzen zen okasio handietan: estropadak entzuteko eta horrelakoetarako.

Eta kalefazorik ez, noski. Ekonomikak botatzen zuen beroaz baliatzen

ziren etxea epeltzeko, baina sukaldetik gela guztietara beroa heltzen ezenez, gau hotzetan ekonomika gainean berotutako adreilu batez edo ur beroz beteriko botela batez joaten ginen ohera hankak epel izan nahi bagenituen.

Telebistarik ez zenez, eta etxean, afal ondoren batez ere, denbora asko izaten zenez, errosarioa errezatzen zen egunero eta amonaren bat izateko ditxa zuenak aukera ere izaten zuen ipuin zaharrak entzuteko. Irakurketarako zaletasuna zuenak ere den-

bora dexente izaten zuen bere afizio-rako.

Jakien aldetik, oilaskoa festa handietarako jakia zen, tomate egina jaten zen baina ez entsaladan, letxua ere orduantxe ikasi genuen jaten, oraingo marisko eta antzeko guzti horiek ez genituen inoiz ezagutu... eta sekulako nazka ematen zigun basokada bat «Aceite de ricino» irentsi behar izaten genuen, gordinik, bitamina asko omen zituelako...

**ANJEL LERTXUNDI*k* idatzia. 1988ko martxoaren 3ko DV-tik hartua eta moldatua.**

## 5.6. TXIKITAKOAK

### HURA ESKOLA, HURA!

Ikastolik ez zen garaian, bi eskola tipo zeuden orain hogeita hamabost urte: erlijiosoak eta nazionalak deitzen zirenak.

Eskolan sartu orduko Francoren argazki aurrean eskuak luzatu eta «Cara al sol» kantatu ondoren, errezoak egin eta eskolan gosaltzen genuen amerikarrek bidalitako gazta hori, biguina eta esne haustua gelan berotzen genuen uretara botata. Gosariaren ondoren hasten ziren klaseak. Etxeetan ez zegoen diru asko eta hemengo krisiari erantzuteko bidali zuten laguntza hori amerikarrek... oraintxe eztabaidan izan diren base militar horien truke.

Berogailuak (eskola askotan ez zegoen berogailurik) ikatzez funtzionatzen zuen. Gelaren erdian zegoen estufa handi bat eta bertan bizten zen ikatza. Honen kea, berriz, gela zeharkatzen zuten tubo luze batzuetatik irteten zen kanpora, baina, askotan, haizearen eraginez, estufa ketan hasten zen eta baita irakasle eta ikasleak ere eztulka bizian.

Bideo eta antzekorik ez zegoen garai haietan, liburuak bakarrik erabiltzen genituen, baina liburu gutxi, sarritan «Enziklopedia» deitzen genion liburu mardul bat besterik ez. Liburu mardul honetan bildurik egoten ziren gai guztiak, matematika nahiz erlijioa, irakurgaiak nahiz natur kontuak.

Ez genuen boligrafoa ezagutzen, eta ikasle mahai bakoitzak tinta urdin ilunez beteriko tintontzi bat zuen. Bertan bustitzen genuen hojalatazko luma zorrotz bat eta hartaz baliaturik idazten genuen. Kaligrafiari garrantzi handia ematen zitzaion. baina tintak askotan gure lanak zikin-zikin eginda uzten zituenez, arrazoi hau garrantzitsua izaten zen zigorretarako.

Plastikorik apenas ezagutzen zen eta gure eskolako tresneria gehiena egurrezkoa genuen: erreglak, plumierak, eskolara joateko maleta...

Zer esan baloiez? Beno, garai hartan gutako batek ala bik bakarrik zuten gurasoek baloia erosteko ditxa, eta baloiaren jabeak nahi izaten zuten bakarrik jolasten ginen futbolean. Horregatik, komeni izaten zen baloiaren jabearen lagun izatea. Badaezpadare... Eta futbolean jolastu ezin ginenetan, era guztietako talde jokuak genituen: banderaka, txorromorroka, asto saltoka, polizi eta lapurretara...

Eta zer esan zigorrei buruz? Garai hartan ez zeuden zigor fisikoak gaizki ikusita eta aldrebeskeriaren bat egiten zenuenean, masailekotik aparte irakasleak bazekien gure esku bat hartu, behatz punttak elkartu eta puntta horiek egurrezko erreгла batez edo gelako pelotak ekartzen zion zume fin batez jotzen. Ederki berotzen zizkiguten behatz punttak, alajaina!, eta gela erdiko estufaren premiarik gabe.

A, eta nola agurtzen genuen irakaslea arratsaldeko jarduna amaitu ondoren? Ba, honela, ze uste duzue!:

— Señor maestro: Hasta mañana si Dios quiere, y si no vengo no me espere.

Jakina, garai haietan euskara galarazia baitzegoen eskoletan.

**ANJEL LERTXUNDI*k* idatzia.**  
**DV-tik hartua eta moldatua.**

## 8.2. SINESKERIAK: ASTEKO EGUNAK

### ERANTZUN ORRIA

#### *Hutsuneak bete.*

1. Astearte eta ostiralak *sorgin eguntzat* . . . . . dauzkate.
2. Astearte eta ostiraletan **EZIN DA/DUZU**  
**EZ DA/ZAIZU KOMENI**
  - a) *...ebakitzea(ebaki)/ josi(jostea)...*
  - b) *...lan berririk hasi (hastea)...*
  - c) *...ongarria zabaltzea/ garia ereitea...*
  - d) *...ile puntarik ebaki/ azazkalik moztu(moztea)...*
  - e) *...txita oiloetarako jarri/ ezkondu/ abel gorriak bordaz aldatu...*
  - f) *...arraultzak oilopearan jarri / ganadua lekuz aldatu...*

#### *Osatu esaldi hauek:*

1. Ostiralean (atzazalak) azazkalak moztu**Z GERO**, (moztu EZKERO) zenbait gauza gerta litezke:  
—Jangoikoa... *negarrez egoten omen da* . . . . .  
—Sorginentzat ... *izaten dira*... eta azazkalak ifernurako . . . *bidea* . . . . .  
edo . . . *galtzada* . . . . . egiten omen du deabruak.
2. Astelehenetan azazkalak ebaki**Z GERO** (ebaki EZKERO), . . . . . *haginekoko oinazeak izango dituzu* . . . . .
3. Hilaren azkeneko eguna eta hurrengoaren lehenengoa onak **badira**, . . . . .  
. . . . . *hilak ondo jarraituko du* . . . . .
4. Asteartean ez hadi ez *...ezkondu(esposatu)* . . . . . ezta . . . . . *itsasoratu* . . . . .
5. Astearteko ezkontzak .....*martirioak* . . . . . omen dira.
6. Ostiralez hasten den hilabetea *...euritsua izango omen da* . . . . .
7. Asteazken eta ostiraletako ilargi beteak aro . . . . . *gaiztoa* . . . . .  
ekartzen du berarekin.

#### HIZTEGIA:

aroa	galtzada
azazkalak (azkazalak)	martitzena
barikua	Nolako eguna halako zeregina
erein	ongarria
gajoa	oinazeak

## 8.2. SINESKERIAK: ASTEKO EGUNAK

*Ondoren dituzu ikasleen artean banatu beharreko sineskeriak; talde bakoitzari eman lauzpabost.*

1. Gauzez ispilura begiratzuz gero, deabruak harrapatuko zaitu.
2. Azazkalak astelehenean moztuz gero, haginak osorik eta sendoak izango dituzu.
3. Mozturiko ileak sutara botaz gero, ez duzu buruko minik izango.
4. Gauzez eliza bati hiru bira eginez gero, sorginek eramango zaituzte.
5. Neska-mutilak, maiatzaren lehenean urdai errea jenez gero, ederrak izango dira.
6. Arto azala jenez gero, begiak edertu egiten zaizkigu.
7. Azazkalak ostiraletan moztuz gero, deabruak ostuko dizkizu.
8. Ile puntak ostiraletan ebakiz gero, ilea sendo haziko zaizu.
9. Maiatzaren lehenean esne beroa edanez gero, ez duzu buruko minik izango.
10. Eskuineko belarrian soinu bat entzunez gero, arrotzen bat etorriko zaizu etxera.
11. Kukuak kantatzen duenean poltsikoan dirua edukiz gero, urte horretan aberastuko zara.
12. Familiako bat hiltzen dela amets eginez gero, bizia ematen diozu.
13. Etxean norbait hilez gero, teilatuko teila bat kendu behar da hildakoaren arima handik irten ahal izateko.
14. Oilarrak gauzez kantatuz gero, kontuz ibil zaitez, sorginak edo lapurrak irtengo zaizkizu eta.
15. Eskuineko belarria bero edukiz gero, norbait gugatik ondo esaten ari da. Baina bero dagoena ezkerreko belarria izanez gero, norbait gugatik gaizki esaka ari da.
16. Zuk zerbait iruntzitara jantziz gero, ez zaitu inork engainatuko.
17. Ganibeta ahoz gora geratuz gero, loteria irtengo zaizu.

---

## **III. INFORMAZIOA**

---





## 1.1. EGUNKARIAko BERRI XELEBREAK

### IKASLEEI EMATEKO FITXA

*Irakurri dituzun zenbait berriri buruzko galderak dira hauek. Informazioa ondo jaso duzun ikus dezakezu. Saia zaitetz ahal den modurik laburrenean erantzuten.*

### ANDREGAIAREN ETXEAN OSTU NAHI IZAN ZUEN

1. Nor zen lapurra?
2. Non lapurtu nahi izan zuen?
3. Zer ostu zuen?
4. Nola sartu zen etxean?
5. Zer egin zuen lapurtu ondoren?
6. Zer dela eta izan zituen susmoak Ertzaintzak?
7. Zer gertatu zitzaion ondoren lapurrari?

### BEREZ BEROTZEN DEN KAFEA

1. Nork asmatu du?
2. Nolakoa da kikara?
3. Zer dago goiko aldean?
4. Zer dago azpiko aldean?
5. Nola berotzen da?
6. Nolako kafe mota salduko dute laster?

## 1.2. ZIKOINA BERE BAKARDADEAN

*Hau duzu Egunkariak ekarri zuen berria, berak ekarri zuen moduan.*

GASTEIZ. Karmele Jaio

JOAN den astean, ostegunean, Gasteizko San Bizente elizako zikoina emeak habiatik aldegin zuen, janari bila ziurrenez. Baina ez zen bueltatu, eta ez du sekula egingo. Bizileku zuen hiriguneko dorrera zihoan, egunkari orri bat mokoan zeramala. eta haize bolada batek orria begietara tolestu eta itsusuan jo zuen Arkupeetako teilatua. Lekukoek adierazi zuten, bertan behera jausi eta momentuan hil zen.

Lehenengo unean hildakoa arra zela esan bazuten ere, hegaztiari autopsia egin ondoren argi geratu zen emea zela zendutakoa. Arra eta arrautzak bakarrik utzi ditu zikoina emeak, eta arrak ondo ulertu du etorkizun hurbilean txitak izango direnak zaintzeko arduradun bakarra dela bera.

Bakarrik geratu bada ere, zikoina arrak ez du etsi. Ama eta aita lanak bereganatu ditu, eta, janariaren bila joateko ez bada. Ez du habiatik alde egiten. Arrautzen gainean jarri, berotu eta noizbehinka altxatu egiten da hauei kontu osoz buelta emateko. Ondoren, berriz ere esertzen da, arrautzak txitatu eta berotzeko. Baina San Bizenteko dorrearen ingurutik egunotan igaro direnek ez dute zikoina inondik ikusi. Ez da habiatik ezertarako mugitu, eta goseak hilko den beldur dira Arabako Diputazioko Ingurugiroko biologoak.

Adituon arabera, arrek ere badute arrautzak txitatzeko gaitasuna, baina normalean emeak izaten dira lan hau bereganatzen dutenak. Emeak janariaren bila joanez gero, orduan jarri ohi dira arrak arrautzen gainean. Baina soilik kasu berezietan, honako honetan bezala.

Arrisku bizian dira zikoina arra eta bere bi edo hiru arrautzak. Bi arrisku nagusi dituzte: arrautzak hoztu eta inkubazioa gelditzea, enbrioia galtzearen ondorioz; edota txitek jaiotzea lortuko balute, aitek bakarrik utzi eta hotzak hiltzea. Horregatik izan liteke hil edo bizikoa arrak habia ez lagatzea.

### **Suziririk gabeko Sanprudentzioak**

Taugres Baskoniak Europako Txapelketa irabazi zuen eguna denok gogoratzeko dugu. Sekulako jaia egin zen Andre Mari Zuriaren enparantzan. Baina omenaldian parte hartu zuten askok ez dakite egun hartan bota ziren suziriek San Bizenten bizi zen zikoina bikotea izutu egin zutela, eta ondorioz gaua beren bizilekutik kanpo igaro eta hurrengo goizean bueltatu zirela.

Orduan ez zen larritzeko ezer gertatu arrautzarik ez zutelako. Baina egungo egoeran, zikoina arrak izutu eta gau oso batez dorretik alde egingo balu, arrautzak galtzeko arrisku handia legoke. Ondorioz, San Prudentzio jaietan su-ziririk ez botatzeko agindua eman du Arabako Foru Aldundiak, adituen gomendioei jarraituz.

Euskal Elkarte Autonomoan hamahiru zikoina zuri bizi dira, hamabi Araban eta bat Urduñan. Ia denak Araban bizi izateak badu bere arrazoia. Izan ere, hegazti hauek lurralde zabalak eta inguru aintziratsuak behar izaten dituzte bizi ahal izateko. Arabara otsailean inguratzen dira, eta uztailetik abuztura bitartean hegoalderantz jotzen dute. San Bizenteko zikoinak kumeekin batera aldegin dezan espero dugu, ugaldu eta urtez urte Euskal Herriko herri gehienetako dorreak zikoinen bizileku izan daitezen.

## 1.5. HAU MUNDUA!

*Hurrengo bi orrietan sei albiste labur eta bitxi daude. Ikasleen artean banatu, albiste horien laguntzaz ikaslearen liburuan dituzten berrien benetakotasuna egiaztatu dezaten. Komeni da aldez aurretik fitxan bertan azaltzen diren jarrera informatiboak eta iturriak erabiltzeko gomendioa egitea.*

### **LODIAK EZIN NONBAIT SOLDADU JOAN**

Dirudienez, lodiera da Britaina Handiko gazte askok soldaduzkara joateko duten eragozpenik handiena. Askok ezin izaten omen ditu soldadu izateko gainditu behar diren frogak gainditu. % 18 ateetan geratzen omen da froga fisikoetan burutu behar den 3 km-ko lasterketa egin ezinik eta beste %25 gaixotasunak direla eta geratzen omen da soldaduzkatik kanpo.

### **ZIGORTU EZIN, SALATZEN ZUTEN FROGAK JAN EGIN ZITUELAKO**

Gheorges Fratimanu 44 urteko errumaniarrak salatzen zuten frogak jan egin omen zituen. Dirudienez, Gheorgesek bere espedienteaz aztertzeke aitzakia jartzen zuen egunero Artxibategira joan eta bere espedientearen orriak jateko. Epaileak ez ziren gertatutakoaz garaiz konturatu eta konturatu zirenean espedientearen azalak eta beste zerbait bakarrik geratzen omen zen. Orain espediente jalea berriro auziperatu dute dokumentuak lapurtzeagatik.

### **HANBURGESAK EZ DIRA ORAINGOXEAK, ALAJAINA!**

Hanburgesa bizimodu modernoaren adierazgarria da, baina ez dira oraingoxeak. Erdi Aroan ere jaten ziren, gaur Alemania denean. Hortik dator izena: Hamburg(esa). Jende xehearen jakia zen. Badaezpadako haragia erabiltzen zuten orduan ere. Alemaniatik Iparramerikara iritsi zen, eta han hasi ziren bi ogi-zatiren artean jaten.

### **ZERGATIK HILTZEN OTE DA ERLEA NORBAIT ZIZTATU ONDOREN?**

Jakina da erlea hil egiten dela norbait ziztatu ondoren. Eta horren arrazoia bere eztenaren izaera da. Eztena ez da orratz leun bat, arrankazi modukoa baizik, garranga batzuk baititu. Hori dela medio larruazalean sartzen du, baina gero ezin du atera. Bere sei hankez eta lau hegaz saiatzen da eztena atera-

tzen gorputza urratu arte, eta han uzten du eztena larruazalean sartuta. Baina askatzeko egiten dituen mugimenduen ondorioz gorputzean zauriak sortzen zaizkio eta, gehienez ere, egun bakar bat irauten du hil baino lehen.

## **BA AL ZENEKIEN ASTRONAUTAK ESPAZIOAN BOST EDO SEI ZENTIMETRO HANDITZEN DIRELA?**

Aspalditik jakin dute zientzilariek espazioan egondako gizakiek aldaketa fisiologikoak izaten dituztela, baina oraingo honetan zentimetrotan neurtu ahal dute pertsona batek, bere espazio-bidaiaren denboraren arabera, izan ahal duen neurri-aldaketa. Aldaketa hau kasu guztietan handitzearena izan da eta ez da txikitze prozesurik eman orain arte espazioan egon diren astronauten artean. Aldaketa hauek, ia bat-batekoak direnez, osasunean ondorio txarrak sortitzakete.

## **BAZENEKIEN GOROSTIA OSAGAI TOXIKOA DELA?**

Pasa diren gabonetan ziur aski gorostia ikusi duzue (zuhaitzetan ikustea espero dut, landare hau oso egoera txarrean dago-eta gaur egun). Beno ba, ikusteko polit-polita bada ere, kontuz! Gorostiak dituen fruitu txikiak jatea oso arriskutsua da, haurrentzat batez ere. Landare hau oso toxikoa da, eta askotan heriotza sortu du. Gorostia jateak dardara eta goragalea sortzen du hasierako uneetan. Noizbait honako egoera batean aurkitzen bazara, edo baten bati lagundu behar badiozu, zera egin: ur gazi eta epela edanarazi, ondoren oka egiteko. Ondoren, osasun-zentro batera eraman behar duzu toxikatua.

### 3.4. AU-PAIR

***Hona hemen A eta B ikasle-fitxak. Banatu ikasleen artean- gelako erdiei A eta beste erdiei B- informazioa bildu aurreko prestatze lanak burutu ditzaten.***

#### A IKASLEA

***Presta ezazu zeure galdekizuna.***

#### GALDEKIZUNA

lanegunak, lan mota,  
orduak, irabaziak,  
eginbeharrak,  
eskubideak, gomedioak,  
hizkuntza-maila,  
asegurua

...

*Hona hemen «AU-PAIR» izandako zenbaiten testigantza.*

1. *«Ni duela lau bat urte Parisera joan nintzen AU-PAIR. Eta hutsegite handia egin nuen; ez nuen aldez aurretik erabaki zenbat ordu eman behar nituen etxeko lanak egiten. Familia judua tokatu zitzaidan, bost seme-alaba txiki... Ni jarri ninduten guztiak zaintzen: eskolarako umeak esnatu, gosaria prestatu, guztien arropak garbitu... Ume txikiak denbora gehiago ematen zuen negarrez isilik baino, Hura ez zen au-pair izatea, hura esklabua izatea zen. Amak ez zuen kolpe zorririk jotzen eta aitak zer esanik ez»*

2. *Au-pair joaten dena hizkuntza arrotz bat ikastera joaten da. Hori da helburua. Horregatik, alde batetik, askoz ere hobe da atzerrira joan aurretik hizkuntza zertxobait menderatzea, batez ere uda bakarrik pasatzeko asmo-*

*tan bazaude, ze hain denbora gutxi egonez gero, hizkuntza piskat ikasten hasten zarenerako itzuli egin behar duzu. Adibidez, Getxoko neska bati ondoko hau gertatu zitzaien: UBIn ikasitako frantsesarekin joan zen eta tren-bidaia zenbat ordaindu zuen galdetu zioten familiakoek. «Combien tu as payé? Eta neskak «tu as payé» «tu apellido» izango zela bururatu zitzaien eta non esaten dien « Bideluze»*

3. *Mari Jose 19 urterekin joan zen «AU-PAIR». «AU-PAIR» joateko 17-18 urte izatea eskatzen dute agentziek. Mari Josek oso esperientzia ona kontatu digu: «15 ordu lan egiten nituen astean eta hilean 120 libera ematen zidaten, ingeles ikastaroa eta egiteko nahikoa diru. Emakume baten bi seme-alabak zaintzen nituen: Kylee eta Lee».*

### 3.4. AU-PAIR

#### B IKASLEA. AU-PAIR AGENTZIA

*AU-PAIR agentzia batean egiten duzu lan. Institutuko irakasle bat joango zaizu informazio bila. Saia zaitez ahalik eta informaziorik zabalena ematen eta egingo dizkizun galderei eta agertuko dizkizun kezkei erantzuten.*

Motak	lanegunak	lanorduak	atsedena	dirua
«AU-PAIR A	6	bost ordu egunean 3/4 gau haurrak zaintzen	egun oso bat 3 arratsalde Beste arratsaldeak ikasteko	5.000 pezeta inguru asteko
«AU-PAIR» B	6	«A»n baino ordu gehiago	egun oso bat bi arratsalde eta gau bat. Gehiago nahi izanez gero negoziatu	6.200 pezeta inguru asteko
«DEMI-PAR»	6	goizetan 3 ordu	astean egun osoa arratsaldero eta gauero	2.000 pezeta asteko
«DEMI-PLUS»	6	goizetan 4 ordu	«DEMI-PAR» en bezala	3.000 pezeta asteko

#### Gazteriaren Biltzar Europarrak «AU-PAIR»-ari buruz ematen dituen aholkuak.

1. «AU-PAIR» dagoenak etxean lan egin behar du, baita haurrak zaintzen ere.
2. Lanaren truke diru piskat jasoko du.
3. «AU-PAIR» dagoenak eskubidea dauka astean ordu batzuk edukitzeko leku turistikoak bisitatu, lagunekin irten edo hizkuntza ikasteko.
4. Egonaldi motzak egiteko, sei hilabete baino motzagoak alegia, beharrezkoa da hizkuntzaren oinarrizko ezagupenak, familiarekin harremanak eduki ahal izateko.
5. Bizilekurainoko bidaiak nork bereak ordainduko ditu.
6. Interesgarria da gaixoaldiak, istripuak edo halakoak estaliko dituen aseguruia eramatea.
7. Herrialdean sartzeko, AU-PAIR doanak familiaren idazkia eraman behar du.
8. Aldez aurretik komeni da honako puntuak argitzea:
  - Lanorduak
  - «AU-PAIR»ak beteko dituen orduak eta egingo dituen lanak zehaztea.
  - Nolakoa izango den alojamendua.
  - Familiar zenbat diren jakitea.

### 3.5. BAKE PIXKA BAT!

***Hurrengo fitxetan Euskal Herriko eta inguruetakoko bost monastegitako informazioa dago. Fitxak ikasleen artean banatu behar dira elkarren artean informazioa truka dezaten.***

#### ARANTZAZU

(Donostiatik 83 kilometrora. 800 metroko altueran. Oñatitik gora. Telefonoa: 781313.)

Arantzazuko Ama Birjinaren jatrorrizko santutegia xv. mende bukaerakoa da eta zenbait sute eta eraso jasanditu historian zehar. Santutegi berria, aldiz, 1969. urtean eraiki zen. Santutegi berria oso estilo berrizalean egina dago eta bere eraikuntzan hainbat arkitekto, eskultore eta margolarik hartu zuen parte, besteak beste: Oteiza, Txillida eta Basterretxeak. Fatxada, bertako apostoluak eta Pietatea Oteizarenak dira; atak Txillidarenak eta kriptako freskoak Basterretxearenak. Santutegi barruan xii. mendeko Ama Birjinaren irudia dago.

Hango ostatua ez dago monastegiarekin bat eginda, aparte baizik. 130 lagunentzako tokia du. Pentsio osoko egonaldiak 7.100 pezeta balio du bi lagunentzat, eta lagun batentzat berriz 4.500 pezeta. Loia 1.500 pezetan ateratzen da. Ostatu hau urte osoan dago irekita, urtarrilean izan ezik. Oporretarako, abuzturako batez ere, logelaren bat alokatu nahi izanez gero garaiz ibiltzea komeni da. Bertatik oso ikuskizun polita dago: Arantzazuko amildegia, haitzak eta erreka zuloa.

Aspaldi honetan era askotako batzarrak egin dira ostatu horretan: poli-

tikarienak, akupuntoreenak, astrologoenak...

Ez da hori hango ostatu bakarra, ordea. Beste hiru ere badira: Sindika (hiruretan handiena, orain igerileku eta guzti), Goiko Benta eta Milikua.

Monastegitik gertu fraileek duten baserria ikus daiteke. Gomistegi du izena eta artaldea zaintzeaz gain, baratze handi bat ere gobernatzen dute. Hango porruak irabazi ohi dituzte Oñatiko sariketa guztiak. Ikusgarriak benetan! Hango esneaz gaztak egiten dituzte ostatu azpian, Idiazabalgo gazta deiturapean egin ere. Oso harrera ona izan du gazta horrek zaleen artean, prezioa berriz, 1.300 pezeta kiloa.

Mendizaleentzat toki aparta da. Ibilaldi ugari egin daitezke: Urbia, Aloña, Aizkorri, Artia aldera...

Bestalde, Arantzazuko Monastegia oso famatua da bertan eman zirelako euskara batzeko lehenengo urratsak.

Arantzazuko gogartetxea	
Telefonoa	781315
Gelak	6 ohe bakarrekoak, 40 bikoitzak/ komunak
Baldintzak	elkarbanatuak Joan baino lehen abisatu
Prezioa	Jende kopuruaren arabera



### 3.5. BAKE PIXKA BAT!

#### OLIBAKO MONASTEGI ZISTERREKOA

(Iruñetik Zaragoza aldera doan kaminotik desbideratuta, 18kilometrora, Zarrakaztelun). (Telefona: 348-725006)

Orain dela aste batzuk ostatu berria bukatu dute. Hogeita bi gela dira guztira, denak komun, bainu eta guzti. Jatordu guztiak barruan sartuta, egunean 2.200 pezeta ordaindu behar da, gutxi gorabehera. Familia osoak ere ametitzen dira, ume eta guzti.

Zistertzientseek bi gauzogatik aukeratuko zuten paraje hau: ur ugari dagoelako eta hango patxadagatik. Aragon ibaia pasatzen da ibar hartatik.

Monastegia XII mendean sortu zen, San Benitoren araua bere modurik gordinenean gordetzeko. Bisitaria berehala jabetuko da etxe hartan dagoen umildade eta apaltasunaz. Beren apaltasun horretan oso ondo hartzen dituzte bisitariak monjeok. Bisitari asko urtero-urtero joan ohi dira, hutsik egin gabe. Badu arrakastarik giza-arte horrek, beharbada, hantxe hemengo parametro guztiek ezertxo ere balio ez dutelako. Hango monjeekin hitz eginda, sinisgabeek jende horren bizikeraren benetako berri izango dute. Ikusiko dute zenbaterainoko irekitasun eta imajinezioz bizi diren. Sinisgabea ere harrituta geratuko da.

Elizaren moldea tipikoa da, Zisterreko ohizko estilokoa. Apaltasun eta soiltasuna dira nagusi.

Bakea eragiten dute hango paretaztarrek. Badira oraindik arrasto batzuk XII. mendeko murraila zaharretakoak. Parterik ikusgarriena, hala ere, abate-jauregi berria dugu, lau mende geroago eraikia.

Sartaldera ematen du monastegiko eliza zaharraren aurrealdeak. Oso izen harrigarria du eliza horrek: San Jesukristo. Sartaldeari begira egote hori ere tipikoa da Zisterreko artean: badu zerikusi sinbolikorik eguzkiarekin. Badu, bestalde konpondu eta berriztatu beharrik tenplu txiki honek.

Monastegia urte osoan dago irekita, baina uztaila edo abuztuan lekua hartzea oso zaila da, bete-betea egoten baita.

Oliva (Zarrakaztelu-Nafarroa)	
Telefona	725006
Gelak	11 ohe bakarretakoak, 7 bikoitak, 3 hirukoitzak, komuna, berogailua.
Baldintzak	Gehinez astebete/ Umeak bi heldurekin batera
Prezioa	2.600 (104L) banako gela/ 2.300 pertsoneko biko gelan.

### 3.5. BAKE PIXKA BAT!

#### LEIRE

(Nafarroako beheko puntan, Yesako urtegi ondoan.) (telefonoa: 948-884011).

Hango ostatua ere monastegitik kanpo dago. Hala izanik, jende guztia ametitzen dute. Egunean, jatordu guztiak barne, 3.500 pezeta ordaindu behar da.

Kantu gregorianoa maite dutenak ederki gozatuko dira han. Lanegunetako meza nagusia, fraile guztiek abestuta, goizeko 8etan izan ohi da. Igande eta jaietan berriz, eguerdiko 12etan. Bezperak ere izaten dira.

Leireko mendizerrako gain batean eraiki zen Leireko San Xalbadarren monastegi hau. Muino batean dagoenez, bertatik oso paraje politak ikus daitezke. Deltazale asko ibiltzen da han; hara hor beste ikuskizun polit bat.

Monastegiari dagozkion lehen aipamen idatziak 898 urtekoak dira, baina gaurko monastegia, berria, xvi. mendekoa dugu. Monastegiak ezagutu zuen garairik oparoena Santxo III. Handia Nafarroako erregearen garaia izan zen xi. mendearen hasieran. Monastegia xii. mendean zistertarren menpe geratu zen eta xix. mendean itxi egin zen. xx. mendean berriro ireki

zen eta gaur egun fraile beneditarren eskuetan dago.

Lehenengo nafar erregeak hantxe daude hobiratuak. Nafar arte erromani-koko ale ederrenetakoa denez, turista ugari biltzen da asteburuetan. Handik gertu, Zangotzan, beste erai-kuntza aparta bat dugu: Andre Mariaren eliza.

#### Nola sortu ziren

Komeni da gogoraraztea noiz sortu ziren tankera honetako aurreneko monastegiak. 529 urtean San Benitok Montecassinoko bere monastegia eraiki zuenean, «Regula Benedicti» zelakoa aplikatuz, hasi zen bizimodu monastikoa.

Bizimodu horretako ardatz eta eginkizun nagusia errezoa da.

Adibide gisa, hona hemen bertako ordutegia:

- Vigilia / Maitines (gauetz).
- Laudes (egunsentian).
- Meza (goizeko 8etan, eta igandeetan 12etan).
- Tercia. -Sexta. -Nona. -Visperas (zazpiak laurden gutxiagotan).
- Completas (hamarrak laurden gutxiagotan).

Leireko San Salvador. (Esan Nafarroa)	
Telefonoa	884041
Gelak	8 ohe bakarrekoak
Baldintzak	Umeak 7 urtetik gorakoak eta helduekin batera. Gutxienez 3 egun eta gehienez 10
Prezioa	2.500 (100L) pentsio osoa

Leire (Esan Nafarroa)	
Telefonoa	884100/ 884137 faxa
Gelak	12 ohe bakarrekoak, 12 bikoitzak, 2 hirukoitzak, 5 oheko
Prezioa	3 gela, komuna, begoraikua 7.000-7.740 pta.

### 3.5. BAKE PIXKA BAT!

#### SILOSKO SANTO DOMINGOREN ABATETXEA

(Burgostik 58 kilometrora). (1.006 metroko altueran). (Telefonoa: 947-380768).

Silosko Santo Domingo, Leire eta La Olibarekin batera, penintsulako monastegirik bisitatuenen artean dago.

Oso toki atseginean eraiki zuen, XI mendean, Ferran Gonzalez kondeak. Klaustroaren barrukaldea Gaztelako arte erromanikoaren ale ederrenetakoa dugu. Museoa derrigor bisitatu beharrekoa da eta bertako botika ere ikusgarria da oso, Talaverako zeramikazko ontzi sorta bikaina baitago.

Kanpotarrentzat hogei gela daude guztira monastegi barruan. Monastegi barruan gizonezkoak besterik ez dituzte ametitzen eta bertan ezin da

10 egunetik gorako egonaldirik egin. Eguneko pentsioak, lo egitea eta jatordu guztiak, 1.900 pezeta inguru balio du. Merkea, beraz.

Monastegi honetara hurbiltzen direnak lasaitasun bila etortzen dira eta bada bertan geratu den bisitaririk ere.

Gaueko 10etatik aurrera isiltasuna gorde behar da monastegi barruan eta ezin da bertako fraileen bizimodu oztopatu. Kontuan izan behar da abenduaren 24 eta 25ean itxita egoten dela.

Handik hiru kilometrora Yeclako mendi zintzur galanta dago; kontrapuntu polita, han sentitu daitekeen zirrara, monastegiko lasaitasunaren aldean.

### 3.5. BAKE PIXKA BAT!

#### BELOKEKO ABATETXEA

Lapurdi Ekialdean dago, Baionatik 25en bat kilometrora.

xix. mendearen bigarren erdi alde-  
ra sortua (1874). Frantzia errepubli-  
karen esku erori zenean oztopo eta  
zailtasun handiak izan zituzten eta  
irakaskuntza debekatu egin zitzaien  
(1880). Gobernu frantsesak ordena  
desagertzeko agindua eman zuene-  
an bertako fraileek Nafarroa eta Gi-  
puzkoara jo zuten, Holtza, Idiazabal  
eta Lazkaora nagusiki. Mende honen  
hasieran, 1928an, fraile beneditarrak  
berriro ere Belokera itzuli ziren.

Bere atea irekita daude edozein  
bisitarirentzat, baina nahigo izaten di-  
tuzte otoitz edo eta gogoeta egitera  
doan jendea bestelakoa baino. Egu-  
na, jatordu eta guzti, 120 liberatan  
ateratzen da. Elizkizunak, bertako  
fraileek euskaraz hitz egiten duten  
arren, latinez egiten dira.

Inguruan oso paraje politak ikus  
daitezke, hala nola Kanbo, Isturitz eta  
Otsozelaiko harpeak.

Bestalde, izen handiko gaztak egi-  
ten dituzte monastegiko fraileek.

## 4.1. LEKUKOTASUNA

*Banatu berri labur hauek ikasleen artean. Gogoan izan gelako heren bakoitzari albiste desberdina ematen diozula. Izan ere, ariketa hiruko taldeetan egitekoa da.*

### FORMULA SEKRETUAK

Cocacolaren imitatzailleek ez dute sekula oso emaitza ona lortu. Horren arrazoia, antza denez, edariaren formula ezkutuan oso ongi gordetzea izan da.

Diotenez, bi pertsonak baino ez dute formula zehatz eta osoa ezagutzen. Bi pertsona horien izena ere sekretua da, eta ezin dute elkarrekin hegazkin berean joan istripuaren arriskuagatik. Horietako bat hiltzen denean, besteak ondorengoa hautatzen du, sekretua gordetzea zin egin eta gero.

Coca-colaz gain, asko dira sekretuan gordetzen diren produktuen errezeptak. Besteak beste: Worcestershire saltsa; Benedictine, Campari, Chartreuse, Fernet Branca Grand Mernier likoreak eta McDonald'sen hanburgesen-tzako saltsa.

*Argiaren egutegitik hartua.*

### ZAZPI BIZITZA AL DITU KATUAK?

Egiptiarrei esker sinetsi izan da katuak zazpi edota bederatzi bizitza dituela. Egiptiarrak erabat txundituta utzi zituen animalia honek altuera handietatik erori eta hala ere minik ez hartzeko duen abileziak, bere arintasunak eta irauteko duen ahalmenak.

Lehenengo katuak Egipton domestikatu (hezi) zituzten, Kristo aurreko 3000. urte inguruan. Orduko biztanleek asko estimatzen zuten katua eta, hiltzen zenean, bere gorpua enbalsamatu egiten zuten, oihal finez estali eta hilkutxatan sartzen zuten material baliotsuekin batera, orduan hain eskasak ziren brontze eta egurrez, esate baterako. Katuaren jabeek dolua gordetzen zuten.

Egiptologoen katu-momiez beteriko hilerri ugari topatu dituzte. Horietariko asko, gaur zorte txarraren adierazgarri izanda ere, beltzak ziren. Azken sinesmen hori, katu beltzak zorigaitza ekartzen dueneko alegia, Erdi Arotik honantzakoa da.

*Argiaren egutegitik hartua.*

## URKATUEN NEGOZIOA

Erdi Aroan, presoen urkatzeak merkatu beltz berezia sortu zuen. Urkamendiko sokek izugarrizko kotizazioa zuten merkatu horretan, gaitzak sendatzeko ahalmen apartak zituztela eta. Urkatuen koipeaz kandelak egiten ziren, altxor ezkutuak deskubritzeko balio omen zutenak. Azkenik, mandragora sendabelarraren entzute ona izugarri hedatu zen orduan, urkamendien azpian hazten baitzen, dirudienez, ongarri bezala urkatuen hazia hartuta.

***Argiaren egutegitik hartua.***

## 4.6. ARANTXAREN GORABEHERAK

*Hurrengo bi orrietan ikasleek ariketa egiteko entzun behar dituzten bi elkarrizketen gidoiak dituzu.*

*Hona hemen Arantxak aitarekin izan duen elkarrizketaren gidokia:*

- Aita: Zer ordutan etorri zinen bart, Arantxa?
- **Arantxa: Ez dakit, hamabi eta erdiak inguruan, uste dut.**
- Aita: Hamabi eta erdietan? Ez zintudan, ba, sentitu etortzen.
- **Arantxa: Kontu handiz ibili nintzelako. Ez zintuztedan esnatu nahi eta isil isilik ibili nintzen.**
- Aita: Beno, beno.... Ta? Kontzertura joan al zinen? Eman nizkizun inbitazioak erabili al zenituen?
- **Arantxa: Inbitazioa? Ba, zera.... Bai, bai, beno.... Baina ez zidan ezertarako balio izan. Azkenean bostehun pezeta pagatu behar izan nituen kontzertura sartu ahal izateko.**
- Aita: Zeeer?, Ordaindu? Nola baina? Askotan sartu izan gara ta horrelako inbitazioekin!
- **Arantxa: Ba..., bai, baina oraingoan ez, ezin izan nuen ezer egin. Dena alferrik izan zen, benetan aita. Amorrua eman zidan! Baina, beno, azkenean ondo egon zen Vivaldiren interpretazioa, eta gaitz erdi.**
- Aita: Aizu, ta, kontzertua ez zen hamaika eta erdietan amaitzen, ala?
- **Arantxa: Bai, baina, zera... zure lagun batzuekin topo egin nuen irteeran eta... badakizu. Gonbidatu egin ninduten kafe bat hartzera eta joan behar izan nuen. Ahalik eta azkarren alde egin nuen. Zer ordu izango zen, hamabi eta erdiak edo. Taxi bat hartu behar izan nuen etxera lehenbailehen bueltatzeko.**
- Aita: Zer? Taxian? Taxian etorri zinela?
- **Arantxa: Bai, azkarrago etortzeko. Eta, aitatxo, zera... badakizu... Sarreran bostehun pezeta, taxian beste larehun... azkenean, batere dirurik gabe geratu naiz. Zergatik ez didazu milako bat ematen?**



## 4.6. ARANTXAREN GORABEHERAK

*Hona hemen Marisak, Arantxaren lagun batek, aitarekin izan duen elkarrizketaren gidoia:*

— **Aita: Zer moduz atzo, Marisa?**

— Marisa: Ahaztu ezineko gaua pasa genuen.

— **Aita: Ez al zinen, bada, Arantxarekin joan?**

— Marisa: Bai aita, hala joan nintzen.

— **Aita: Ta? Ez al zineten,ba, kontzertuta joatekoak?**

— Marisa: Ba..., asmo horrekin atera ginen, baina Arantxaren aitak eman zizkigun sarrerak beste lagun bati eman genizkion eta gu jazza jotzen duten diskoteka batera joan ginen.

— **Aita: Orduan, ez zineten Vivaldiren kontzertura joan? A ze parea! Eta, zer moduz diskotekan?**

— Marisa: Giro aparta zegoen. Musika ere primerakoa. Aspaldi pasatu dugun gaurik zoragarriena izan genuen.

— **Aita: Eta? Mutilik-edo? Lagun berririk-edo egin al zenuten?**

— Marisa: Bai aita. 12ak aldera bi mutil, zoragarriak, ezagutu genituen eta beraiekin eman genuen gau osoa.

— **Aita: Ta, zer ordutan etxeratu zinetan, ba? Ez zintudan sartzen somatu.**

— Marisa: Berandu samar.

— **Aita: Bai, hala beharko. Mutil zoragarri horiek hamabietan ezagutu bazenituzten, ez zineten, ez, 12 eta erdietarako etxeratuko.**

— Marisa: Hirurak aldera abiatu ginen eta kontu handiz ibili naiz ama eta zu ez esnatzeko.

— **Aita: Hirurak orduan,e? Bada ordua etxeratzekoa, ezta?**

— Marisa: Bai, aita. Hurrengoan goizago etorriko gara. Ah, aita, badakizu..., dantzalekuko sarrera, tragotxuak... Asteko dirurik gabe geratu naiz. Zertxobait aurreratu beharko didazu, bestela...

— **Aita: Aurreratu, aurreratuko dizut, baina hurrengo astekotik kenduta, jakina.**

— Marisa. Bale, ba!

#### 4.7. IKUSKARIAREN BISITA

*Hurrengo orrrialdeetan IKUSKARIAREN BISITA Rol Play jokoa egi-teko ikasleek hartu behar dituzten paperen deskribapena duzu. Gogoratu ikasleei bakoitzari tokatu zaion rolean aritu behar duela eta bereizi egin behar dela informazio zehatza, sasi-informazioa, zalantzazkoa, zurrumurruak eta abar. Rolak banatzeko orduan, ikasleen arabera banatzea komeni da. Esate baterako, zuzendariaren rola ikasle dinamiko bati eta hizkuntza maila nahikoa duen bati ematea komeni da, bere lana klaustroa zuzentzea eta informazioaren artean zein zuzena, zein erdipurdikoa, etab. zorroztasunez argitzea izango baita. Idazkariaren lana ere, idazten erraztasuna eta laburpenerako gaitasuna duen ikasle bati ematea komeni da, tarteka-marteka eztabaida bideratu eta laburpenak egin beharko baititu.*

*Dinamikari dagokionez, hariketa bi alditan egitea komeni da. Lehendabizi, irakasle arrunt direnak elkartuko dira eta duten informazioa trukatu egingo dute: bakoitzak dakiena, entzun duena, esan diotena. Bitarte honetan zuzendariak eta idazkariak klaustroa prestatuko dute: arazoaren nondik-norakoa zehaztu eta klaustroak hartu beharreko erabakiak zehaztuko dituzte. Honetarako guztirako, 20ren bat minutu nahikoa dira. Lehenengo aldi honi bukera eman ondoren, klaustroa simulatuko da. Zuzendariak emango dio hasiera klaustroari, arazoa mahai gainean jarritz eta berak zuzenduko du klaustroa, idazkariaren laguntza izango duelarik.*

*Hona hemen rolen deskribapena.*

##### 1. DBHko IRAKASLEA

DBHko irakaslea zara, lehenengo ziklokoa. Ez duzu harreman handiegirik aipatutako irakaslearekin. Harro samarra iruditu zaizu beti. Ikasleekin gogorre-gia iruditzen zaizu.

Irakasle horri buruz zuk daukazu informazioa:

- Aspaldi ama batek esan zizun bere semeari zartako bat eman ziola, eta negarrez utzi.
- Irudipena duzu, orain dela sei bat urte edo, mutur joka ibili zela ikasle baten aitarekin.
- Gurasoen bidez askotan iritsi zaizu kexu bat edo beste: desatsegina dela, ikasleak ez dituela berdin tratatzen, ikasle batzuei trufa egiten diela, etab.

— Behin whisky botilatik edaten ikusi zenuen goizeko hamarretan, klasera sartu aurretik, hain zuzen.

## 2. DBHko INGELES IRAKASLEA

DBHko Bigarren zikloko irakaslea zara, Ingelesa ematen duzu. Tartekako harremana izan duzu Pedro Madariagarekin. Harremanetan zuzena, agian zorrotzegia ikasleekin?

Irakasle horri buruz daukazun informazioa:

- Askotan tirabirak izan ditu ikasleekin, zure ustez ez delako oso trebea harremanetan.
- Notak jartzen zorrotza. Hala ere ez du ematen diskriminaziorako bidetik jotzen duenik.
- Aspaldi entzundakoa: behin istilu handi baten ondoren ikasleen oso lagun ona izan zen.

## 3. DBHko IRAKASLEA

DBHko irakaslea zara, bigarren ziklokoa. Garai batean harreman handia izan zenuen Pedro Madariagarekin. Irakasle ona edo gutxienez arrunta iruditzen zitzaizun, xelebrequeriaren bat edo beste kenduta. Egia da xelebrequeria hauetako batzuk jendearen haserrea pizten zutela.

Irakasle horri buruz zuk daukazun informazioa (batez ere xelebrequeriei dagozkiena):

- Tarteka ahotsa jasoten zuen, ia garrasi egiteraino, ikasleek esandako astakeriak nabarmentzeko.
- Azterketetan azken ehunenekoraino zehaztea nota (4,75ak eznahikotzat zituen).
- Ikasleen arteko bereizketak egitearena gezurra dela ia seguru zaude (gutxienez garai batean, aspaldi galdu baituzu berarekiko harremana).

## 4. ZUZENDARIA ZARA

DBHko irakaslea zara, Lehenengo ziklokoa. Aurten zuzendari lanetan zaudete. Pedro Madariagaren kasua ez duzu oso ondo ezagutzen. Zu karguan hasi zarenetik kexak azaldu dira han eta hemen, guztia bat batean lehertu den arte. Pedro lehendik ere ezagutzen zenuen baina ez zuen aparteko berezitasunik. Orain, ordea, dena da arazo, dena zailtasun. Atarramentu onik ez.

Klaustro honetan zure helburua egia zorroztasunez ezagutzea da. Ez duzu, zurrur-murru, uste eta iritzirik nahi. Zehatz ezagutu behar dituzu gertatutakoak. Gezurra eta egiaren arteko bereizketa garbia egin behar duzu.

## 5. IDAZKARIA ZARA

Idazkaria zara. Lasaitasuna eta patxada eskatu behar diezu irakaskideei, bestela ezin izango duzu idatzian jarri aipatzen diren gauzak. Ziur izan behar duzu zuk jasotzen duzuna, laburbilduta bada ere, irakasleak esan nahi izan duena dela, eta ez beste ezer. Beraz, askotan esan nahi duena garbi adierazteko eskatu beharko diozu hitz egin duen irakasleari.

## 6. DBHko IRAKASLEA ZARA

Egunero ibili zara lanean Pedro Madariagarekin, beraz oso ondo ezagutzen duzu. Baina onartu beharra daukazu ez duzula batere gustuko. Alde batetik oso aldarte aldakorreko pertsona da: pozik badago atsegina da, badaki gizalegea zer den; baina haserratzen denean ez da giro izaten bere inguruan. Azken hau zure ustez maiz gertatzen da. Beste aldetik zure ustez ez du batere gogoko irakas-kuntza, lan gutxi egiten du eta zabarra da. Onartu beharra daukazu jarrera honetan partzialeria zarela.

Irakasle horrek egin dituenak:

- Askotan botatzen ditu ikasleak gelatik.
- Garrasi eta oihu egitea normala da berarentzat. Ikasleak ikaratuta dau-de.
- Behin atsedenaldiran ederki astindu zuen ikasle bat beste bati bultza egite-agatik.
- Notak jartzen oso berezia da: hamarrenak oso kontutan hartzen ditu. Horretaz aparte, eta ziur ezin esan baduzu ere, gogoko dituen ikasleei askoz tratu hobea ematen die besteei baino.
- Tarteka gurasoen opariak onartu izan ditu, txikikeriak askotan. Hala ere behin edo beste erregalu onak ere eman izan dizkiotela uste duzu.

## 7. DBHko GIZARTE ZIENTZIA IRAKASLEA ZARA


DBHko Bigarren Zikloko irakaslea zara, Gizarte ematen duzu. Ondo ezagutzen duzu Pedro Madariaga. Xelebre samarra dela badakizu, baina horretaz aparte guztiz irakasle ona dela uste duzu. Gurasoekin arazoak izatea, tarteka, normala da. Pedrok gainera itxurak zaintzen ditu.

Ezagutzen dizkiozun xelebrekeriak:

- Klasean batzuetan oihu bat edo beste egitea.
- Ikasleei trufa egitea mingaina atereaz.
- Gainditzeko onena urdaiazpiko on bat ekartzea dela esatea. Erregaluei dagokionez, aitortu beharra daukazu, berak esan zizula behin erloju dotore bat ekarri ziotela. Hala eta guztiz ez dakizu berak onartu ote zuen.
- Gurasoak ez ditu oso ondo hartzen batzuetan. Hau da zure ustez bere arazorik handiena. Behin guraso batzuekin gelditu eta nahita ez zen agertu. Beste batean muturjoka hasi zela uste duzu.

## 4.10. ZUK ERE BAI?

***Hurrengo lerroetan bi pertsonaia ezagunen lekukotasuna duzu. Bertan, euskararekin izan duten harremana eta orain dutena kontatzen dute. Bana itzazu ikasleen artean, bi pertsonaia hauen esperientziak truka ditzaten.***



*«Kazetaria naiz,  
eta euskaraz ondo  
idatzi nahi dut»*

Luis Barreireoren aurpegia ezaguna dugu gure artean, gauero iristen baita Hego Euskal Herriko etxeetara ETB2ko teleberriaren bidez. Hala ere, jende gutxik daki bilbotar honen euskaraz badakiela, eta ondo gainera.

### **Euskaldunzaharra ala euskaldunberria zara?**

Biak naizela esan dezaket. Txikitan ikastolara joan nintzen Bilbon, eta OHOkos bosgarren mailan jesuitetara pasatu nintzen. Hor euskara ia galdu egin nuen. Unibertsitatean nengoenean hasi nintzen berriro ikasten.

### **Zure etxean bazekiten euskaraz?**

Nire ama euskalduna da. Donostiakoa da, eta beti egin du euskaraz. Nik txikitan berarekin beti euskaraz hitz egiten nuen, eta gaur ere bai.

### **Berriro euskara ikasten hasi zinen orduan?**

Bai, Deustuko Unibertsitatean egin nituen ikastaro batzuk, eta orain dela bi urte Errezilera joan nintzen baserri batera. Asmoa nire euskarari bultzada bat ematea zen, batez ere berba egiteko orduan. Errezilen bi hilabete pasa nituen, eta oso esperientzia polita izan zen. Hala ere, asteburuetan joan egiten nintzen, garai hartan asteburuetan lan egiten nuelako Euskal Telebistan.

### **Asko ikasi zenuen baserrian?**

Hasierako egunak pasatuta, asko ikasten da. Euskaraz hitz egitera ohitzen zara. Euskaraz moldatzen zara, azken finean. Izan ere, baserria utzi eta Bilbora itzultzean, nire lagunek ez zekiten euskaraz.

### **Unibertsitatean zinela hasi zinen euskara ikasten. Norbaitek bultzatu zintuen?**

Nire erabakia izan zen. Hainbeste denbora euskara ukitu gabe, bada, pentsatu nuen ikastaro bat egitea. Gainera, garai hartan unibertsitatera arratsaldean joaten nintzen eta goizak libre nituen.

**Zein izan dira euskara ikasten izan dituzun arazorik handienak?**

Beno, adibidez, Zornotzako barne-tegian egon nintzenean ikusi nuen hitz egiteko arazorik ez nuela, eta jende guztiari berdin gertatzen zitzaiola. Baina ez nuen hori bakarrik nahi, ondo idaztea ere bazen nire asmoa. Kazetaria naiz, eta euskaraz ondo idatzi nahiko nuke, baina zail ikusten dut.

**Jende askok ez daki euskalduna zarenik. Ausartuko zinateke egunen batean ETB1en gaur Egun aurkezten?**

Oso gauza zailak eskatzen dituzu. Aurreko urtean egin nuen froga txiki bat. Errezilgo baserriko esperientzia kontatzeko programa batean egon nintzen, baina informatibo bat aurkeztea beste kontu bat da. Badaude batzuk pauso hori eman dutenak, eta hor dago Jorge Cerrato esate baterako. Egunen batean beharbada...

*Egunkariatik jasoa.*

## 4.10. ZUK ERE BAI?

***Nik ere bai***

***Jabo Irureta***

**Realeko entrenatzaile ohia**

*«Hemengo entrenatzailea naizen aldetik, nire eginbeharra da euskaraz egitea»*

Jabier Iruretagoiena Irunen jaio zen familia euskaldun batean. Berak txikitatik aditu zuen euskararen soinua bizi zen baserrian. Errealean jardun zuen bitartean euskara hobetzen ahalegindu zen egunero-egunero.

### **Noiz hasi zinen euskara ikasten?**

Ez dakit ziur zenbat denbora, baina uste dut hamar urte gutxi gorabehera izango direla. Orduan astean bi egunez hasi nintzen joaten Algortako gaueskolara. Halaxe aritu nintzen urtebete edo bi urte, baina gero entrenatzera joan behar izan nuen hemendik kanpo eta utzi egin nuen. Ondoren, joan zen urtean Bilbora itzuli nintzen eta berriz ere hasi naiz irakurtzen, entzuten eta pixkanaka-pixkanaka galdutakoa berreskuratzen.

### **Zer dela-eta hasi zinen euskara ikasten?**

Ni Irungo baserri batean jaio nintzen eta nire senideak euskaldunak ziren, baina garai hartan Irunen oso gutxi hitz egiten zuten euskaraz eta, nahiz eta abestiak eta horrelako gau-

zak beti euskaraz kantatu ditugun, ez nuen neureganatu mintzatzeko erraztasun handirik. Gainera, gero Madrilerera joan nintzen At. Madrilen jokatzerara eta asko galdu nuen. Ondoren, Euskal Herrira itzuli eta ikusi nuen euskara bultzatu egin behar zela, eta neure euskara hobetzeko hasi nintzen ikasten. Gainera nik beti pentsatu izan dut nire gurasoak euskaldunak zirela, eta baita nire seme-alabak ere. Orduan, zergatik gu, erdian gaudenok, ez?

### **Gaur egun nola ikusten duzu euskararen egoera?**

Nik uste dut euskara aurrera doala, baina oraindik asko geratzen da egiteko, euskara kanpora eta kalera aterada dadin.

### **Gaur egun askotan ateratzen zara komunikabideetan euskaraz hitz egiten, ezta?**

Bai, nik uste dut errebindikazio hori egunero egin behar dela, eta hemengo entrenatzailea naizen aldetik, nik uste dut nire eginbeharra dela euskaraz egitea.

### **Egunero bizitzan egiten al duzu euskaraz?**

Bai. Etxean eta beste zenbait tokitan ere hitz egiten dut. Ez askorik, gehiago gustatuko litzaidake, baina hitz egiten dut.



**Irakurri ere egiten duzu, ezta?**

Bai. Egunkaria irakurtzen dut eta irratia edo ETB1 ere ikusten dut.

**Realaren aldageletan hitz egiten al da euskaraz?**

Bai, nik zenbait jokalariri gauza batzuk esaten dizkiet euskaraz. Hala ere, beraien artean bai hitz egiten dute. Esate baterako, Imanol, Imaz,

Pikabea, Emeri... Horiek beraien artean euskaraz egiten dute.

**Eta Bilbon?**

Beno, Bilbon ere bai, baina hemen Bilbon baino jende gehiagok daki euskaraz eta beharbada horregatik gehiago hitz egiten da.

***Egunkariatik jaso.***

## 5.1. GURPIL IKERKETARIA

### *Ikasleen artean banatzeko txartelak.*

#### TXARTELAK

1. Familia osoa Madrila doa. 1833garren urtea da. Fernando VIIgarrena hil da, eta borroka sortzen da Penintsula osoan. Gure gizonak 13 urte ditu, eta etxetik ihesi doa, Euskal Herriko ejertzitoan sartzeko.
2. Gerratea amaitu zen. Gure gizonak ez zuen onartu jeneralen bakea eta erbestera joan zen. Baina handik itzuli eta Madrilen jarri zen bizitzen. Bazen han kafetegi bat San Luis izenekoa. Han biltzen ziren Madrilen bizi ziren euskaldunak. Gure gizona ere hara joaten zen oso maiz. Eta han aritzen zen kanta eta kanta.
3. Ejertzitorea joateko etxetik alde egin zuenean, honela esan zion gure gizonak bere amari: «Eskolara noa». Baina hogeitun urte beranduago itzuli zen, erbesteran ibili eta gero. Ama bizirik zegoen oraindik eta honela esan omen zion: «Ene seme, hau al da eskolatik etortzeko ordua?»
4. Erbestetik itzultzean, aukera ona eskaini zion San Luis kafetegiak gure gizonari. Berehala konturatu zen euskaldunak nola zeuden: Foruak edo Lege Zaharra galduta, urduri, kezkatuta... Giro hartan, eta aipatutako kafetegian, abestu zuen bere kantu famatu hura.
5. 1858garren urtean, Ameriketara jo zuen. Baionan hartu zuen itsasontzia. Alegiko neskatxa bat zuen laguna. Tolosan maitemindu ziren. Zergatik jo zuen, ordea, Ameriketara? Bera bezalako jendea behar-beharrezkoa zen momentu horretan hemen, Euskal Herrian. Baina hala ere joan egin zen. Zergatik? Erreta? Etsita? Auskalo!
6. Buenos Aires-en oso harrera ona egin zioten. Izan ere, ordurako, oso famatua zen gure gizona mundu guztian. Itsasontzitik jaistean, «Biba! Gora» oihu egin zion jendeak. Berehala aurkitu zuen lagun bat eta hark lagundu zion ezkontzeko paperak konpontzen eta lana bilatzen. Negozio on bat baino gehiago proposatu zioten, baina gure gizonak ez zuen jakin ondo aukeratzeko. Dirudienez, ez zen negozio-gizona.
7. Gure gizona Madriletik Euskal Herrira etorri zen, berehala zabaldu baitzen hemen ere Madrileko bere kantu famatu hura. Han eta hemen ibili zen kantari: gaur Gipuzkoan, bihar Araban, etzi Bizkaian eta hurrengoan Nafarroan. Jende pila joaten zen entzutera eta agintariak kezkatu egin ziren eta horregatik preso sartu zuten kartzelan. Gure gizonak Euskal Herriko Foruen alde kantatzen zuen eta bere kantuekin jendea bertu egiten zuen.

8. Lehenago ere erbestera joan behar izan zuen jeneralen besarkada ez onartzeagatik. Eta orain berriro, 1855garren urtean, erbestera joan beharko du. Hala ere ez zen lur jota gelditu. Libre sentitzen zuen bere burua. Santander eta Asturias aldean ibili zen lehendabizi. Gero, Galiziara, Portugalera eta Andaluziara jo zuen. Bi urte pasa eta gero, Gipuzkoara itzuli zen.
9. Lehenengo aldiz erbestera joan zenean, Frantziara joan zen; gero Italiara. Eta Ingalaterra ere ezagutu zuen. Han ere kantari ibili zen. Ez dakigu ziur zenbat denbora pasa zuen Ingalaterran. Agian, pare bat urte. Egun batez, jaialdi batean, Ingalaterran, Mazarredo jeneralak entzun zion kantatzen. Bukatutakoan, bostekoa eskaini zion eta bere arazoa laster konponduko ziola agindu.
10. Urretxun jaio zen gure gizona. Aita Idiazabalgoa zuen eta ama Gabirikoakoa. Osaba bat zuen maisu Zerainen eta harengana bidali zuten gure gizona bost urterekin eskola piska bat ikasteko asmoz. Geroago Gasteizen ikusiko dugu ikasketak egiten. Ikusten denez, txiki-txikitatik hasi zen alde batetik bestera ibiltzen.
11. Madriletik Zerainera etorri zen, osabaren etxera. Nola etorri ote zen? Oinez? Ez dakigu. Orduan 14 urte zituen. Osabari ez zitzaion gustatu haren portaera, etxetik alde egin izana, alegia, eta Lazkaora bidali zuen konfesatzera. Baina gure gizonak alde egin zuen azkar asko eta soldaduen kanpamendura joan zen ejertzitoan sartzeko.
12. Ameriketara, Euskal Herrira itzultzeko irrika biziaz zegoen. Egun batez jakin zuen. Euskal Herriari bere Foruak kendu zizkiotela (karlisten gerak bukatutakoan) eta hona itzultzea erabaki zuen. Familia han, Ameriketara, utzi eta etorri zen 1877garren urtean. Bordelen utzi zuen itsasontzia. Eta handik Hendaiara etorri zen. Ordukoa du beste kantua famatu hura.



## 5.4. BIDEO-KAMERAK

### ZUZENDARIA

#### Egoera

Hor irakurri duzunak burura ekarri dizu zeure ikastetxean ere agian ez litza-tekeela batere gaizki etorriko horrelako bideo-kamerak jartzea. Alde onak begi-bistakoak dira:

- segurtasuna (lapurretak, txikizioak, pintadak, ...)
- sekula ere agertzen ez diren «errudunak» berehala harrapatuko genituzke...
- ikasgeletan benetan zer gertatzen den, nola lan egiten duten ikasleek eta irakasleek jakingo genuke
- puntualitatea, etab. asko hobetuko lirateke...

Non jarri? Ahalik eta leku gehienetan (geletan, pasiloetan, irakasleen gelan, mintegietan, ...)

Gai han dela eta bilera egingo duzu irakasleen, ikasleen eta gurasoen ordezkariekin haien iritzia ezagutu eta horren arabera jokatzeko.

#### Eginkizunak

- a) Bilerari hasiera eman (zergatik eta zertarako den azaldu)
- b) Proposamena egin (arrazoiak eman) eta jarrera horri eutsi
- c) Bozkatu.

### GURASOA

#### Egoera

Zuzendariak bilera baterako deia egin dizu eta Guraso Elkartearen izenean zoaz. Berak azalduko dizkizue bileraren arrazoiak eta helburua.

#### Eginkizuna

- a) Zeure burua aurkeztu noren izenean zoazen azalduz
- b) Bileran parte hartu ondorengo irizpideen arabera:

Zuzendariaren proposamena oro har ez zaizu gaizki iruditzen. Eman dituen arrazoiak bidezkoak dira eta hasieran behintzat bere aldeko jarrera azalduko duzu bileran. Zuzendariak emandakoez gain beste arrazoiaren batzuk ere izan ditzakezu, hala bada, azaldu. Botoa ematerakoan, eztabaidaren arabera, abstentziora ere jo dezakezu.

## IRAKASLEA

### Egoera

Zuzendariak bilera baterako deia egin dizu eta klaustroaren izenean zoaz.

Berak azalduko dizkizue bileraren arrazoia eta helburua.

### Eginkizuna

- a) Zeure burua aurkeztu noren izenean zoazen azalduz.
- b) Bileran parte hartu ondorengo irizpideen arabera:

Ikasle bihurriak zaintzeko eta kontrolpean edukitzeko baldin bada, tira. Baina irakasleon gela barruko kontrola egiteko baldin bada, ezta pentsatu ere! Jokabide hori katedra-askatasunaren aurka joango litzateke zure ustez. Beraz, zertarako diren bideo-kamera horiek, onartu egingo dituzu ala aurkako jarrera azalduko.

## IKASLEA

### Egoera

Zuzendariak bilera baterako deia egin dizu eta ikasleen izenean zoaz.

Berak azalduko dizkizue bileraren arrazoia eta helburua.

### Eginkizuna

- a) Zeure burua aurkeztu noren izenean zoazen azalduz.
- b) Bileran parte hartu ondorengo irizpideen arabera:

Ikastetxean bideo-kamerak jartzea, horrela, besterik gabe, erabat onartezina iruditzen zaizu eta helburu bakarra edo inportanteena ikasleok kontrolatzea baldin bada, areago oraindik. Dena dela, helburuen artean irakasleen kontrola ere sartzen baldin bada, tira, zeren irakasleak ere kontrolatu bebarra baitago. Zeuk ikusi zer nolako botoa ematen duzun.

## IDAZKARIA

### Egoera

Zuzendariak bilera baterako deia egin dizu eta, idazkaria zarenez, bertara zoaz.

## **Eginkizuna**

- a) Zeure burua aurkeztu noren izenean zoazen azalduz.
- b) Oharrak hartu, gero akta idatzi ahal izateko:
  - Partaideak
  - Proposamenaren arrazoia eta helburua
  - Aldekoen arrazoiak
  - Aurkakoen arrazoiak
  - Kontraproposamenak
  - Erabakiak (baleude)

## **IKASTETXEKO SIKOLOGOA, ORIENTADOREA, KONTSULTOREA ...**

### **Egoera**

Zuzendariak bilera baterako deia egin dizu eta aholkulari gisa zoaz.

Berak azalduko dizkizue bileraren arrazoia eta helburua.

### **Eginkizuna**

- a) Zeure burua aurkeztu noren izenean zoazen azalduz.
- b) Bileran parte hartu zure irizpideak emanez.
- e) Bozketan ez hartu parte.





# ERANTZUNAK

---

## 1. GAIA

### 1.3. LANKIDE BERRIA

#### Entzumena

1C	2C	3C	4B	5A	6B	7C	8C	9B	10B
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

### 2.1. IKASTETXEA EZAGUTZEN. Hutsuneak bete

#### Entzumena

1. *beheko/ pasillo muturrean, sarreraren pare-parean (aurrez aurre duzu)*
2. *parekoa/ ezkerre(ta)ra*
3. *bigarren pisuan (solairuan), pasillo(aren) hasieran, ezker aldean (ezkerreko aldean)*
4. *lehenengo/ ondokoa*
5. *bigarren pisuan dago, pasilloaren bukaeran, eskuineko aldean (eskuinaldean)*

### 3.1. NON DEMONTRE OTE? Hutsuneak bete

#### Entzumena

*bailaran/ gertu, hamar(ren) bat kilometro(ta)ra/ Artziniaga/ ezkerre(ta)ra / hirurak/ ezkerre(ta)ra/ eskuine(ta)ra/ Arespalditzara/ ezkerre(ta)ra ( ezkerreko bidea)/ eskuinaldera (eskuinetara) jo (hartu).*

*Zuzen-zuzen Menagarairaino/ ezkerre(ta)ra/ pasa/ jauregi/ urrutitik.*

### 4.1. ESKOLA EGUTEGIA

#### Entzumena

URRIA: 12a, *astelehen*/ eskola egunak 21.

ABENDUA: 7a, 8a *jaiegunak* / (7a *zubi*)/ 24an: *gabonetako* oporren hasiera.

URTARRILA: 11a, astelehena, *hasiko da eskola/ eskola egunak 15*

OTSAILA: *15etik 19ra* jaiegunak/ eskola egunak 16

MARTXOA: 31a, *osteguna*, Aste santuko...

APIRILA: *11n,* astelehena, ...

EKAINA: 14a, *asteartea*, *amaituko dira klaseak*

GUZTIRA.....172

## 5.1. IKASTURTE HASIERA

### Entzumena

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
09:00	Euskara	Euskara	Plastika	Erlijioa/etika	Euskara
10:00	Gaztelera	Gaztelera	Plastika	Euskara	Gaztelera
11:30	Matematika	Matematika	Gorputz hezik	Matematika	Tutoretza
14:30	Gizarte zientzia	Gizarte zientzia	Gaztelera	Gizarte zientzia	Ingelesa
15:30	Ingelesa	Natur zientzia	Ingelesa	Natur zientzia	Natur zientzia

### Egia/gezurra

1G	2E	3G	4G	5G
----	----	----	----	----

## 6.5. UDAL LIBURUTEGIA

### Irakurriaren ulermena

1G	2E	3G	4E	5G	6E	7E
----	----	----	----	----	----	----

## 6.9. BARNE ARAUDIA

### Entzumena

1G	2G	3E	4G	5G	6G	7G	8E	9G	10E
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

## 7.1/7.3. GUTUNA ZUZENTZEN

Hitz okerrak	Hitz zuzenak
7ean hontaz kurso irailak 11 9.tan irailan guzitan urriak 13 abenduak 7 apirilak 30 astelena laister	7an honetaz kurtso irailaren 11 9etan irailean guztietan urriaren 13a abenduaren 7a apirilaren 30a astelehena laster

## 8.2. PASADIZOAK

**Irakurriaren ulermena**

1B	2	3	4C	5A	6D
----	---	---	----	----	----

## 9.2. LOUIS PASTEUR

**Irakurriaren ulermena**

1E	2G	3G	4E	5G	6G	7E	8G	9E	10E
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

## 2. GAIA

### 1.1. HERRIETAKO JAIAK

#### Irakurriaren ulermena

Jaiaren izena	Non	Noiz	Zer	Ohitura
Aste Nagusia	Bilbo	Abuzt. 3. astean	Agur Marijaia	Ibaiertzean erre...
Ama Guadalupekoa	Hondarribia	IX-8	Alardea	Desfilea
Sanantolinak	Lekeitio	IX-5	Antzara eguna	Antzara jokoa
Euskal Jaia	Zarautz	IX-9	Euskal Jaia	Erromeria
Santakruzak	Lezo	IX-13(14)	Zabarrerren etorrera	xviii. mendeko pirataren...
Andra Mari Zuria	Gasteiz	VIII-4	Zeledonon jaitsiera	Zeledon. Purua
Maritxu Kajoi	Arrasate	Urriko 1. ostirala	Txikiteroen eguna	Txikiteo dotorea...
Porrontxoak	Egia (Donostia)	IX-erdialdera	Santurik gabeko jaia	Kuadrilen jaitsiera

### 1.3. MARITXU NORA ZOAZ?

#### Irakurriaren ulermena

1B	2A	3C	4D	5C	6C
----	----	----	----	----	----

### 2.4. ARANTZA URRETABIZKAIA

#### Entzumena

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18
G	G	E	G	E	E	G	G	G	G	E	G	E	G	E	G	G	E

### 3.2. TELEFONISTAK

#### Irakurriaren ulermena

1B	2A	3B	4D	5C	6B
----	----	----	----	----	----

### 4.1. GABONAK MUNDUAN

#### Irakurriaren ulermena/ mintzamena / entzumena

1. Cuba; 2. Polonia; 3. Wisconsin; 4. Idaho; 5. Polonia; 6. Cuba; 7. Angola; 8. Australia; 9. Angola.

## SANTO TOMASEKO FERIA

**Irakurriaren ulermena**

1B	2A	3C	4H	5D	6F	7G	8E
----	----	----	----	----	----	----	----

## 5.3. ANE IGARTIBURU

**Entzumena**

1G	2G	3E	4E	5G	6E	7E	8G	9E	10G	11E
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----	-----

## 5.4. KALE GIROA-IMANOL

**Entzumena**

1G	2E	3E	4E	5G	6G	7E	8G	9G	10G
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

## 7.1. ENERGIA AURREZTEN

**Entzumena**

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
X		X		X				X			X	X	X		X

**3. GAIA**

## 1.3. EHUN MILA MARRAZKI

**Irakurriaren ulermena**

1G	2G	3E	4G	5G	6E	7G	8E	9E	10G
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

## 4.8. ITURRI INFORMATIBOAK

**Irakurriaren ulermena**

1C	2B	3C	4C	5A	6B/C
----	----	----	----	----	------

**ZAPLASTAKOAREN ERABILERA****Entzumena**

1 EZ	2 BAI	3 EZ	4 BAI	5 BAI	6 BAI	7 EZ
------	-------	------	-------	-------	-------	------

**5.2. METODO BERRIA****Entzumena**

1E	2G	3G	4G	5G	6G	7E	8G	9G	10G
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

**5.3. IKASKETAK AUKERATZEN****Entzumena**

1X	2X	3	4X	5	6X	7X	8	9X	10X
----	----	---	----	---	----	----	---	----	-----

# EUSKARA ZERBITZUKO ZENBAIT ARGITALPEN

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

00/05/08

### GLOTODIDAKTIKA LANAK

#### *Ebaluazioak eta hizkuntz testak*

25. Galbahe-E2 Hizkuntz Testa. (I.Olaziregi, J. Sierra)
26. Galbahe-E1 Hizkuntz Testa. (I.Olaziregi, J. Sierra)
30. PIR-5 Hizkuntz Testa. (I. Olaziregi, J. Sierra)
36. EIFE-3 Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina. (J. Sierra, I. Olaziregi)
37. Euskara Probak. Irakurmena eta idazmena OHoko 8. mailarako. (J. Sierra, I. Olaziregi)
38. HINE. Hizkuntza idatziaren neurketa eskolan. (J. Sierra, I. Olaziregi)

#### *Gaitasun-agiriak*

52. EGA. 1997 eta 1998ko azterketak. (N. Gardner)
56. Irakasleen Hizkuntz Eskakizunak. 1999ko azterketak.

#### *Hizkuntzen irakaskuntza*

15. Hizkuntz Jolasak. (M. Sainz, I. Olaziregi)
19. Euskalkiz Euskalki. (R.M. Pagola)
23. Trebatzen. OHoko Goiko Ziklorako Hizkuntz Ariketak. (M. Sainz)
34. Oinarrizko Hitzak. Euskarazko hitz erabilgarrienak. (I. Olaziregi)
45. Irakasleen Euskalduntzea. HE1erako curriculum: 1000, 2000 eta 3000 atalak.
48. Euskara DBHn. Metodologiazko orientabideak (J.J. Agirrezabala etab.)
49. Irakasleen Euskalduntzea. HE2rako curriculum: 4000 eta 5000 atalak.
53. Gramatika Gaitasuna Lantzen (A. Zubizarreta, M. Dorronsoro, J.M. Azurmendi)
54. Kontuan izan. Akatsak zuzentzen. (P. Eizagirre Irure)
55. Hartu hitza (ikaslearen liburua) (A. Peñalba, P. M. Aranburu, J.J. Uranga)
57. Hartu hitza (irakaslearen liburua) (A. Peñalba, P. M. Aranburu, J.J. Uranga)

### HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

#### *Hizkuntz Prestakuntza*

1. Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta Aditza. (A. Arejita-J.M.Irazola-J.Uriarte)
2. Euskal Aditza: Bizkaiera eta Batua. (J.M. Irazola)
4. Bizkaierazko Joskera. (A. Arejita, J.M. Etxebarria, J.M. Irazola, J. Uriarte)
5. Hezkuntza Administrazioako Hiztegia. (I. Olaziregi, J.M. Berasategi, M. Zalbide)

### ZABALKUNDE LANAK

#### *EIMA (Euskal Ikasmaterialgintza)*

38. EIMA. Idatzizko ikasmaterialen bilduma 1994. (J. Aizpurua, B. Basterretxea, I. Olabarria, M. Zalbide)

43. EIMA. Ikus-entzunezko Ikasmaterialen Bilduma 1996-97. (P. Mendizabal, I. Olabarria, M. Zalbide)
46. EIMA. Hezkuntza-softwarearen bilduma 1998. (P. Mendizabal, I. Olabarria, M. Zalbide)

*Irakaskuntza datuak*

24. Euskal Irakaskuntza: 10 urte. (M. Zalbide etab.)
49. Basque in Education. (N. Gardner)

*IRALE (Irakaslearen Alfabetatze Euskalduntzea)*

z/g IRALE. Aurkezpen-txostena 2000-2001.

*NOLEGA (Normalizazio Legearen Garapena)*

18. Eskola Antzerkia 1. (Askoren artean)
  28. Eskola hiztun bila. (B. Basterretxea etab.)
  30. Eskola Antzerkia 2. (Askoren artean)
  31. Eskola Antzerkia 3. (Askoren artean)
  34. Euskal Girotze Barnetegiak. (Askoren artean.)
  37. Ikastetxeen Errotulazioa. (C. Lobo, I. Artola, J.M. Berasategi)
  40. Eskola Antzerkia 4. (I. Artola, J.M. Berasategi)
  42. Eskola Antzerkia 5. (I. Artola, J.M. Berasategi)
  44. Kontrapas. 1950 aurreko kantuen eskola-katalogoa. (Eresbil, Nolega)
  45. Eskola Antzerkia 6. (I. Artola, J.M. Berasategi)
  47. Eskola Antzerkia 7. (I. Artola, J.M. Berasategi, S. Izagirre)
  48. Euskal Girotze Barnetegiak. (Askoren artean)
- z/g Barriola Deklamazio-saria 1999 (kasetea)
- z/g NOLEGA. Aurkezpen-txostena 1999-2000.
- z/g Sagastiberri. Urruzuno literatur lehiaketa 1999.







EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

---

# HARTU HITZA

---



57

Euskara Zerbitzua  
Glotodidaktika-lanak

## HARTU HITZA DISKOAREN EDUKIA

### I. KURTSO HASIERA

1. Ikastetxea (2.1)
2. Berako institutua (2.6)
3. Non demontre ote? (3.1)
4. Eskola egutegia (4.1)
5. Ikasturte hasiera (5.1)
6. Barne-araudia (6.9)

### II. OHITURAK, JAIK ETA SINESKERIAK

7. Plantxatzeko gogorik ez (2.1)
8. Familiaren aldaketa (5.5)
9. Txikitakoak (5.6)
10. Nolako ikasgaiak? (6.2)
11. Gehiago luzatu (6.3)
12. Gehien gustatzen zaidana (6.4)
13. Etxeko ohiturak (7.1)
14. Ikasgelako ohiturak (7.2)
15. Sineskeriak (8.2)

### III. INFORMAZIOA

16. Oharrak jasotzen (2.2)
17. Tutorea gurasoekin (2.3)
18. Familia euskaldunetan egonaldiak (3.2)
19. Arantxaren gorabeherak (4.6)
20. Ikasketak aukeratzen (5.3)



## **HARTU HITZA DISKOAREN EDUKIA**

### **I. KURTSO HASIERA**

1. Ikastetxea (2.1)
2. Berako institutua (2.6)
3. Non demontre ote? (3.1)
4. Eskola egutegia (4.1)
5. Ikasturte hasiera (5.1)
6. Barne-araudia (6.9)

### **II. OHITURAK, JAIK ETA SINESKERIAK**

7. Plantxatzeko gogorik ez (2.1)
8. Familiaren aldaketa (5.5)
9. Txikitakoak (5.6)
10. Nolako ikasgaiak? (6.2)
11. Gehiago luzatu (6.3)
12. Gehien gustatzen zaidana (6.4)
13. Etxeko ohiturak (7.1)
14. Ikasgelako ohiturak (7.2)
15. Sineskeriak (8.2)

### **III. INFORMAZIOA**

16. Oharrak jasotzen (2.2)
17. Tutorea gurasoekin (2.3)
18. Familia euskaldunetan egonaldiak (3.2)
19. Arantxaren gorabeherak (4.6)
20. Ikasketak aukeratzen (5.3)

57  
Euskara Zerbitzua  
Glotodidaktika-lanak

# HARTU HITZA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERIKORTZA, LIBERTADATE  
ETA JUSTIZIA GAIHA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

© EUSKO JAURLARITZA  
ISBN: 84-457-1549-6 - L.G.: BI 000/2000



*Hartu hitza*

EK15020262

ISBN 84-457-15



9 788445 715